



OSTERA HASTERA

COVID-19aren ondorioak zer-nolakoak izango dira?
Nolakoa izango da mundua pandemia bukatzean?
Analisia egin dute hainbat herritarrek 18





**HEZIKETA ZIKLO
INDUSTRIALAK**

Informazio saioa: maiatzak 21
18:00etan | on-line
Gorde tokia: 943 74 82 65
ziklook@imh.eus

www.imh.eus




**INGENIARITZA DUALAREN
UNIBERTSITATE GRADUA**

Informazio saioa: maiatzak 28
17:00etan | on-line
Gorde tokia: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus

www.imh.eus



BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak
eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOTIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net

uztarria

Argitaratzailea. Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Egoitza. Soreasuko sormen gunea, 1 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. ISSN 1576-7337
Zenbakia. 227.a (2020ko maiatza)
Urtea. XXI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 / uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez
Webgunea. www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2020KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



mamia

Elkarrizketa. Asier Sustaetak eta eskualdeko hainbat lagunek 'Korosagasti' filma egin dute **04**
Klik! Udaberriak utzi duena argazkietan jaso du Alex Berasategik **14**
Erreportajea. Konfinamendu egoeran izugarritzko giroa sortu da herriko hainbat auzotan. Hainbat bizilagunekin solasean aritu da Uztarria **24**

jakiteko

Bestaldetik. Inazio Egañak gozogintza du ogibide, baina baditu bestelako afizioak ere **34**

Ba al dakizu saninazioak eta auzoetako jaiak koLokan direLa, koronabirusaren krisia deLa eta? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta...

ASIER SUSTAETA

ikus-entzunezkoen ekoizlea

“Mundu guztiak dauka istorio bat sortzeko”

Ofizioz arotza bada ere, ikus-entzunezko proiektuak sortzen ditu. Bost urtez ‘Korosagasti’ filma egiten arituta, estreinatzeko pronto dute lana. 📝👁️ Nora Alberdi

Erabaki Produkzioakeko kidea da Asier Sus-taeta. Ofizioz arotza bada ere, afi-zioz ikus-entzunezko proiektuak sortzen ditu, Oihan Amezuarekin eta Netzer Bereziartuarekin bate-ra. Gauzatu duten azken proiektua *Korosagasti* filma izan da. Urola Kostako hainbat pertsona-ren laguntzarekin osatu dute lana, eta bost urteko sortze pro-zesuari ostean, herritarrek antzokietara joateko aukera izan be-zain pronto estreinatuko dute.

Imajinatu 18 urte dituzula eta ikasketak aukeratzeko unean zaudela. Arotza iza-tea aukeratzeko al zenuke ber-riz ere?

18 urterekin ez da erraza lana zer-tan egingo duzun jakitea. Nik,

baina, 16 urte nituenerako eraba-kita nuen egurrarekin lan egingo nuela. Uste dut aroztintzak sor-kuntzatik asko duelako aukeratu nuela egurrarekin lan egitea. Izan ere, egurretik altzariak sortzerai-noko bidean sormenak badu lekua. Dena den, gaur egun den-boran atzera egiteko aukera izan-go banu, ikus-entzunezko mun-dutik bideratuko nituzke ikaske-tak. Baina ez naiz damutzen orain arte egindako ibilbidearekin. Ikus-entzunezko ikasketarik ez izan arren, modu batera edo bes-tera dudari sorkuntzarako grina kaleratzeko gai izan naiz.

‘Aio’, ‘Oinaze egoitzak’, ‘Kro-nos’, ‘Korosagasti’... Zerk bultzatzen zaitu ikus-entzu-nezkoak sortzera?

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1979ko irailaren 5a.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizitokia. Azpeitia. |||Lanbidea. Arotza.

Erabaki Produkzioakeko kidea naiz, eta taldea sortzeko izan ge-nituen arrazoi berberak medio ari-tzen gara sortzen, hau da, zinema eta irudia oso gustuko ditugula. Halere, uste dut zinema bera baino gehiago gustatzen zaidala eta zaigula, oro har, zinemagintza. Mundu guztiak dauka istorio bat sortzeko, amesteko edo sortuta dagoen beste bat eraldatzeko ahalmena, eta guk, Erabakiko ki-deok, amets hori ikus-entzunez-koen munduko pantailara erama-tea erabaki dugu. Hain zuzen ere, erabaki hori hartu genuelako gara Erabaki Produkzioak.

Zergatik duzu gustuko iru-dia-aren mundua?

Soinua irudia bezain garrantzi-tua dela da ikus-entzunezkoen arloan daramatzadan urte gutxi hauetan ikasi dudari gauzetako bat. Bakoitza lanaren %50 da. Biek behar bezala bat egiten du-tenean, sortzaileak ikaragarriko gaitasuna izaten du ikuslea edo-zein garaitara eramateko eta haren sentimenduak dantzan jar-tzeko. Beldurra, tristura, alaitasu-na, haserrea... eragin ditzake bien baturak. Horrek asko erakartzen nau, eta horretarako ahalmena izateak ere bai.

Zergatik egin duzu ‘Korosa-gasti’?

Horixe galdetu dit alabak bost urte hauetan: zergatik jarraitzen



dudan film hori egiten. Eta, egia esan, zergatia ez daukat garbi. Uste dut istorioak merezi duela kontatzea, istorio latza delako benetan. Gainera Azpeititik gertu, Beizaman, jazotakoa da gertakizuna, eta horrek are arrazoi gehiago eman zigun filma egiteko. Badut gaiak oso gertutik ukitzen duen lagun bat, eta hasieratik izan dut hari omenaldi moduko bat egiteko nahia ere. Bestalde, jende pila bat dabil ikus-entzunezkoen munduan sartuta. Ikasketadun jende mordoxka bat dago inguruan, bai arlo teknikoan aritzen dena, bai arte eszenikoetan dabilena. Horiek oso proiektu interesgarriak egiten dituzte baikoitzak bere kontura, eta pentsatu nuen *Korosagasti* izan zitekeela elkarlanerako lehenengo proiektua. Halaxe izan dela esan dezaket.

Sortze-prozesua berezia izan da, ezta?

Bai, prozesua luzea eta berezia

izan da. Horrelako proiektu bat, film profesional bat, urte eta erdian ekoizten da normalean, eta guk bost urte eman ditugu horretan. Prozesua pausoz pauso gauzatu dugu. Halaxe egin nahi genuen hasieratik; izan ere, ikusten genuen talde txikia ginela. Bagenekien egin duguna baino denbora gutxiagoan ezingo genuela gauzatu. Denok denbora librean hartu behar izan ditugu tarreak, eta ez da erraza izan. Lehenengo gidoia osatzeko sormen beka jaso genuen. Lehen eskema egin nuen nik, eta gero, Alaitz Olaizolarekin eta Miren Gorrotxategirekin osatu genuen gidoia. Bigarren fasean, taldeak osatu genituen: talde artistikoa, castinga egingo zuen taldea, irudiaren taldea, soinuaren taldea, ekoizpen taldea... Behin aurrekoizpena eginda, grabaketari heldu genion. Proiektu profesionaletan eta amateurretan gertatzen den moduan, gorabehera asko izan

genituen, baina gainditu ere egin genituen, eta 36 grabazio egunen ostean, emaitza txukun batekin gelditu ginen. Ondoren, grabatutako irudien hautaketa egin eta editatzeari ekin genion. Oihan Amezua azpeitiarra arduratu da kolorearen tratamenduaz, eta Fabio Morenas zestoarra soinuaren postprodukzioaz. Azken pausoa gelditzen zaigu emateko, banaketari lotutakoa.

Zer ikasi duzu prozesuan?

Batez ere, ekoizpen lana egiten. 200 lagunek parte hartu dute proiektuan, eta ondorioz, jendearekin harremana izaten eta talde handiagoarekin lan egiten ikasi dut.

Nondik atera dituzu bost urte luze proiektuarekin aurrrera jarraitzeko gogoia eta indarra?

Izan dira dena bertan behera uzteko gogoia izan dudan momentuak. Bost urteotan denetarik pasatu da, bai aurreprodukzioan, bai grabaketan, baita ondoren

ere. Begira nola gauden orain ere... Dena amaituta dugu, filma estreinatzeko prest dago, baina, hala ere, ezin. Hainbeste lagun inplikatu denez eta dirulaguntza batzuk jaso ditugunez, konpromiso handia sentitzen dut. Omenaldi egin nahi diodan lagun hori ere ez da momenturik onena pasatzen ari, eta horrek ere ematen dit beste bultzada; lagun horri poza emateagatik bukatu nahi dut prozesua. Jaione emazteari ere eskerrak eman nahi dizkiot, bere babesagatik izan ez balitz ez nukeelako erokeria hau egingo.

Emaitzarekin gustura gelditu al zara?



Ez dakit nik esatea ondo dagoen, baina emaitzarekin oso gustura gelditu naiz; izan ere, uste dut aurrerapauso handia eman dugula orain arte egindako bidean. Proiektua amateurra izan arren, emaitza profesionala lortu dugulakoan nago. Baina beno, hori ikusleek esan beharko dute.

'Korosagasti'-ren estreinaldi eguna nolakoa izango dela imajinatzen duzu?

Iristeko amorratzen nago. Dena den, badakit oso gaizki pasatuko dudala, urduri egongo naiz ziur. Orain arte egin ditugun estreinaldietan oso urduri egon izan naiz, eta oraingoan ez dut uste lasaigo egongo naizenik. Uste dut 60 minutuko film on bat egitea lortu dugula, eta haren aurrestreinaldia Soreasun egingo dugu. Gero ikusiko dugu filmak zer ibilbide izan dezakeen.

Beizaman estreinatzeke proposamenik jaso al duzu?

Bai, hara ere joango gara. Han hasi zen guztia, eta tokatzen zaigu istorioa Beizaman ere kontatzea.

Erabat aldatzen ari da ikus-entzunezkoak kontsumitze-ko modua. Zer iritzi duzu egoeraz?

Dena azkarra da: "Hau ez zait gustatzen", eta bota. Beste bat hartu, eta "hau ez", beraz, bota hori ere. Ikus-entzunezkoen kasua ere halakoxea da, eta gai-



Sustaeta eta Gurutze Eizmendi aktorea, grabaketa saio batean. |||Korosagasti

“Altzariak sortzerainoko bidean sormenak badu Lekua”

“proiektua amateurra izan arren, emaitza profesionala da”


nera, ikuslea erakartzea ez da baxterre erraza. Jendea azkar nazkatzeko da produktu bera ikustearekin, borroka handia dago eta interes ekonomikoak ere izugarriak dira. Uste dut formatu zaharrak ez duela etorkizunik; izan ere, leihatila bitartez horrelako proiektu handiak finantzatzea ez da erraza. Plataforma digitalak daude gailurrean; horiek egiten dituzte ekoizpenik handienak. Dena den, horiek ekoizpen handienak dira,

baina ez dute zertan politenak edo onenak izan behar. Film baikoitzaren atzean istorio bat dago, eta istorioa da ikuslea erakartzen duena.

Aurrera begira, zer asmo dituzu?

Korosagasti aurkeztu eta atsedean hartuko dut; etxekoek eskertuko dute, eta nik ere bai. Arnasa hartu beharra dut. Gustura aritu naiz, baina bost urte luze izan dira, eta nekea nabaritzen dut.*

www.urrategiinteriorismo.com



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

dica @ www.dica.es

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arragueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



Konfinamendua

Triste nago. Apirilaren 22a da. Seigarren astea konfinamenduan. Kultur-gileak greban dira. Maite Larburuk atzoko *Berrian* zioen “era guztietako eskaerak egin dizkidatelako. Guztia sortzaileak oraindik ere lanean ari direla erakusteko aitzakiarekin, baina doan”. Eta ni, azken orduan, Uztarriarako zerbait idatzi nahian. “Kultur-gileekiko mentalitatea da Euskal Herrian aldatu behar dena. Dohainezko eskaera horiek lotsa eman beharko lukete, ezinegona sortu eskatzen duenarengan: ultramarinoan patata kiloa dirurik gabe eskatuko bagenu bezalaxe”. Neure egin dut Larburuk esandakoa. Indartsua iruditu zait, partekatu beharrekoa.

Hilabete eta erdian ez dut apenas haurrik ikusi, Whatsappeko argazki edo bideo deien bidez ez bada. Jolas parkeak prezintaturik daude. Irribarrea, jolasa, kolorea, bizi-poza falta zaizkigu kaleetan. Zorte pixka batekin, zuek artikulu hau irakurtzerako haurrak jolasan ikustearen plazera berreskuratzen hasi izango gara.

Ez dut nahi

Ez dut adinekoak, haurrak, gaixoak lau parenten artean egotera kondenatzen dituen estatu nahiz erkidego batean bizi nahi, eta berdin zait espainiarra, frantziarra edo euskalduna bada. Argi geratu zen gurean nork agintzen duen. Confebaskeko burua irrastian entzun besterik ez zegoen Sanchezek edozein motako jarduera ekonomikoak bertan behera geratzen zirela adierazteko dekretuaren berri eman zuen biharamunean. Apokalipsiaren lau zaldunak trostan jarri zituen. Herritarrei patxada eta itxaropena zabaldu beharreko garaian, izua eta ezinegona ereiten, irabaziak armamentu nahiz azpiegitura militarra produzitzetik poltsikoratzen dituzten enpresek ere ateak ixteko agindu zelako, besteak beste. Urkullu eta Tapia hark jotako doinu dantz.



|||||olatx aranguren|||

|||Triste nago, baina maite ditudanei besarkada bat lasai emango diedan eguna amets



Ez dut denoi dagozkigun erabakiak inolako azalpenik gabe hartzen dituzten agintarien menpe egon nahi. Azokak bertan behera utzi nahi izan dituzte, denda txikiak itxi. Saltoki handietako ilaran otzan nahi gaituzte; erosketak Internet bidez egiten eroso, plataforma handien irabaziak potolduz. Bitartean, inolako diru iturririk gabe edo laguntzen bidez agindutako apurren zain geratutako zenbat jende! Irratia edo telebista pitzuz gero, Netflix edo HBOren bidez filmak nahiz telesailak kontsumitzeko aholkatuko digute. Otzan. Erromatar agintariak herriari ogia eta zirkua eskaintzen zizkioten; guri Netflix, Amazon eta supermerkatuak.

Lana etxeraino sartu zaigu, eta ez dugu kezkatzerik. Asko eta asko lanik gabe geratu dira, beste asko lanera joatera behartu dituzte edo behartuta daude, segurtasun neurriak bermatu aurretik. Tutoretzak bideo deien bidez, egoera berrira egokitutako ebaluazioak, ikerketarako artikuluak aurkeztu beharreko epeak mantendu egin dira. Lanak ez du izan etenik. Koronabirusak ez du udaberriko oporrak zer diren ulertu. Baina zereginek gainezka egingoan, sortu nahi genuena ateratzen ez zenean egiten genituen ibilaldiak edo igerialdiak ezin eginda gaude. Erosketak egitera ateratzea arnasbide bakartzat, maite den jendearekin fisikoki topo egiteko modu bakartzat.

Izaki sozialak gara. Izaten ditut jendearekin nekatutako aldiak, baina nire fede bakarrenetakoa bizitzarengan, jendartearengan, eta bereziki, haurrengan daukadana da. Behetik sortzen den mugimenduan, boterean, sinestun dut. Txikiaren handitasunean. Ez dut erasotzailearekin bizitzera behartzen duen konfinamendurik nahi; ez dut zaintzearen aitzakian itozten gaituen inoren menpe egon nahi. Ardura norbanako bakoitzarena da, ez beste inorena. Triste nago, baina maite ditudanei besarkada bat lasai emango diedan eguna amets.*

Ohol lantegia

Z

aila zait zerbait diferentea aurkeztea, esan denetik apartekoa; ezberdin formulatua, sikiera. Ezin dut, edo gogoz arraskatu beharko nuke. Besoak antxumatu ta nago, egitearen eta egotearen arteko espazio geldoan; ez egiteko, ez egoteko.

Gogoan dut, Madrilen bizi ginela, tarteka bertso-eskola egiten genuela lagun bertsolari batek eta biok etxeko egongelan. Hasieran, gai librean hasten ginen: molde honetan inguruko erreferentziei tiraka, publikoa interperlatuz, elkarri erantzunez, momentuko elementuak hizpidera ekarriz eta limatuz osatu ohi du bertsolariak saioa. Bertso-bazkari-afaritan ohikoena den formatua da. Kontua da, hasi, hasten ginela, baina hamar minutu pasatzerako, berriz hasierako laukitxora itzultzen ginen, aurrez ateratako gaien errepikapen gogaikarriaz geure buruak aspertu eta *Bertsoa.comi* gaiak eskatzea erabakitzen genuen arte.

Orain ere, antzeratsu sentitzen naiz. Datuak, hildakoak, datuak, irudiak, txaloak, balkoiak, irudiak, polizia egurrean, irudiak, isunduak, datu-jasa, Whatsapp, Facebook, *fake news*, osasun langileak, haurrak, datu ezkutaketak, sendatutakoak eta despeditu gabeko hildako gehiago. Zaparrada horren azpian desinformazioa zarra-zarra, ezjakintasuna eta egonezina galanki eta egiaren ukazioa nonahi. Eta informazioaren faltan, egiaren faltan, giza garunaren hausnar ahalmena erdira murrizten da, ekoitzi ere hala moduz ekoizten du. Ohol lantegira pinurik sartzen ez bada nekez aterako da oholik.

Etxean geratzeko exijitu ziguten, zentzudunak izateko, eta harrotasunez bezala hitz eman genuen etxean geratuko ginela, arazoizko kausa baten partaide ginelako. Umorea eta kontzientzia zibikoa higatu egiten dira, ordea, egun denak berdina direnean. Orduan, amorratzen hasten gara erakundeen kudeaketa kaskarragatik, osasun irizpideekin bat ez datozen neurri justifikaezinenga-



Jon gurrutxaga

III Eman dizkiguten iragarpenak ezinago makurrak dira. Dena ez da ilun, halere



tik, langile sektore ezberdinen esplotazio batiatik, poliziaren inpuniteagatik edo bizilagunen begiradek ere poliziarenak diruditelako. Jarri direnak baino maskara gehiago erori dira azken hilabeteotan.

Fikzioa errealitate

Mundualdi honetan inork ezagutu gabea jazo da. Kontakizun distopikoak hezurmamitu dira; fikzioa errealitate ukigarria da orain. Etxe-zuloetan –batzuk beste batzuk baino zuloagoetan– lotuta gauzkate, eta beldurrez gaude, orokorrean. Ondo justifikatutako beldurra da. Asko eta asko pita baten gainean aurkitzen garelako, babesgabe, zaurgarritasun erabatekoan. Ekonomia kapitalistan eta harekiko guztizko dependenzian bizi ginela ezagun genuen, baina ispilua muturrean lehertzea beste gauza bat da.

Ortze mugarik ez dakusagu, eta eman dizkiguten iragarpenak ezin makurragoak dira. Dena ez da ilun, halere. Egoeraren larritasunean, jendeak batzera egin du. Hamaika izan daitezke adibideak: elkartasun dinamikak martxan jarri dira, autoantolakuntza sareak indartu dituzte ikasleek, apunte bankuak edo klase partikular autogestionatuak sustatuz; tokiko ekimen borondatezkoak abiarazi dira; elikagai bankuak, zaintza sareak, premiazko gaien etxez etxeko banaketak... konpromiso militante harrigarriaz, osasun protokolo zorrotzak betez eta karitatek urruti, oso urrutiti. –Hainbestek amestua den– dena bukatzen den egunean, larrialdi egoeran suspertu diren kimu emantzipatzaile horiek guztiak indartzen eta babesten segitu beharko genuke, erresistentzia antolatu beharko genuke, kapitalaren gurpil gupidagabeak mazpildu eta asimila ditzan –gaitzan– nahi ez badugu, bederen.*

“Lan profila aberasten dute ingelesezko proiektuek”

Maite Bernedo (Azpeitia, 20 urte) Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduko hirugarren maila egiten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Ba al duzu zaletasunik?

Batxilergora arteko ikasketak Azpeitiko Urola Ikastolan egin nituen, eta orain Arrasaten ari naiz ikasten. Betidanik gustatu izan zait dantza egitea: lehen balleta egiten nuen, eta orain gutxira arte areto dantzak. Orain, igeri egiten dut denbora librean, eta yoga ere gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Hasieratik, garbi nuen disei-

nu munduko zerbait ikasi nahi nuela. Zenbait fakultate-
etako ate irekietara joanda, Mondragon Unibertsitateak konbentzitu ninduen gehien; metodologiagatik, zehazki. Lehenen urtetik, ikasturtean ikasten duguna praktikan jartzen dugu proiektu bidez, eta enpresa mundura hurbiltzeko aukera ere izaten dugu, praktika errealak tarteko.

Orain arte bizitako esperientziaz zer balorazio egin duzu?

Une batzuetan gogorra egin bazait ere, hirugarren maila amaitzera noa eta gauza asko ikasi ditudala ohartu naiz. Jendea ezagutzen, jende ezberdinarekin lan egiten eta pertsona bezala hazten lagundu didala esan dezaket.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?



Maite Bernedo Mondragon Unibertsitateko ikaslea da.

Metodologia jarraia denez, lanak eta azterketak prestatzen aritzen gara beti. Horrek, arduratsua izaten eta egunean egunekoa arazorik gabe eramaten lagundu dit. Gainera, irakasleen gertutasuna eta laguntza eskertzekoak dira. Horrez gain, gure lan profila aberasgarriago egiten du hirugarren mailan jasotzen ditugun klaseak eta egiten ditugun proiektuak ingelesez izateak.

Zer da unibertsitate gehien gustatzen zaizuna?

Seihilekoaren bukaeran egiten ditugun proiektuak amaitutakoan, ikasi duguna baliagarria dela eta bizitza errealean erabilgarria dela ikustea da gehien atsegin dudana.

Etorkizunerako, zer asmo dituzu?

Kanpora joatea gustatuko litzaidake, ziurren master bat egitera. Lan munduari dago-kionez, berriz, programa ezberdinetan modelatze lanak egitea gustatuko litzaidake. Baina nire lehen helburua gradua amaitzea da, noski.

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



ieltxu caballero



Kaleak eta planeta

GIZARTEA. Hunkitu egiten du kaleak hutsik ikusteak. Hain itzaliak, beldurrezko film batetik ateratako irudiak bailiran, bizirik gabe. Faltan sumatzen da kaleko zurrumurru hori, jendea gora eta behera, umeak jolasean... Planetari atsedean hartzen utzi diogu behintzat, pixka bat arnasten. Munduko hainbat leku ikusi besterik ez dago, gizakiak emandako atsedean horrekin onerako zenbat aldatu diren jabetzeko.



Balkoiak harmaila

KIROLA. Nahiz eta Sevillara joan gabe geratu garen bi taldeetako zaleak, balkoiak harmaila bihurtuz, ez dugu behintzat elkarren arteko pikearekin jarraitzeko aukera galdu. Izango dugu aukera Sevilla ikurrinez betetzeko. Hau gosetzen joateko izan da.



Txaloak bakarrik ez, mesedez

GIZARTEA. Zortea dugu herrian, zorionez, ez delako hainbeste hedatu gaitza. Baina guztiz aldatu da guztion bizimodua. Hala ere, pertsona ugari lehen lerroan ari dira gaitzaren aurka borrokatzen: osasun langileak, etxeko arretakoak, egoitzetakoak, suhiltzaileak... Eta

bai, ondo dago 20:00etan txaloka eskertzea, baina hau amaitzean ere gogora gaitzen beraiekin, eta batez ere, defenda ditzagun. Zaintzaileen duintasuna, osasun arloko murrizketen aurka, suhiltzaileen zerbitzuaren kalitatea bermatzea... Txaloak bakarrik ez, mesedez.✳



|||||txetxu urbieta|||

Gorrotoa lege

Pertsona hobeak izango omen gara amesgaizto honetatik ateratzean. Barkatu, baina nire iritzi eta ustea guztiz kontrakoa da. Gorrotoa lege. Irakurri dudana liburu potolena, arreta handienarekin irakurri dudana. Oinaztarrak eta ganboatarrak. Gorrotoa, ezin ikusia. Mendeak pasatu dira, eta gizakiak berdin segitzen du. Aginte, botere eta diru gosea. Bandoak. Nirekin ala nire kontra. Eztabaidarik ez, iritzi trukerik ez, proposamenik ez. Nirea, gurea ala batez. Nire belarrien musikaz badator, dena da ona; operak beste doinu bat badu, zuzenean zakarrontzira. Muturrak muturtuta mutur-joka aritzeko prest. Indar eta botere erakustaldiaren azpian, norbere buruareiko eta iritziekiko konfiantza falta izugarria. Jakituria eza ez da arriskutsua, ikasteko borondate falta eta norbere usteak inposatzeko nahia da hezurretarrainoko beldurra ematen duena. Gizarteko esparru guztietan *Salvame* da nagusi. Politikan, ama ere salduko lukete agintearen truke; sare sozialena etsigarria da, *like* ala hil; kirolean, garaipena gozamenaren gainetik; balkoietan, zortziretako txaloak...

Oraindik ere baikorra naizela aitortuko dizut. Egoerari aurre egiteko lehenengo egoera onartu behar da, eta nik egin dut. Muturreko gutxiengo horrek mutur joka jarraituko du. Gehiengo masa isilak, isilik. Gizarteak usteltzen jarraituko du. Baina nik badut zugar fedea, itxaropena. Eta pasabide lurtiar labor honetarako zu bezalako dozena erdi nahikoa ditut. Masak saihestuz, talde txikietan goxatuko dugu arima. Hori bai, ez ahaztu, ni bekatar, aurrena eta aurrenekoa. Zaindu.*

Metro eta erdi

Dottore della Peste izenekoa da Veneziako karnabaletan hain ezaguna den maskara sudur-luzedun mozorro beldurgarria: Erdi Aroan izurri beltza zuten gaixoak artatzean, medikuek –orkatilarainoko larruzko berokia, kapela hegal-zabala eta eskularruak soinean–, makilaz lagunduta, zentzuzko tartean aldentzeko baliagarria zuten ustez Norbere Babeserako Ekipoa.

Dottore haiena ez, Pinocchioarena dute koronabirusaren inguruko datu makabroekin dantza egiten dutenek: komenientziaren arabera kopuruen inguruko konpara ezinezko alferrikako konparazioak; deseskalatzearen kurbaren eliptikoaren analisi eguneratu desitxuratuak... sudurra hazi eta hazi, metro eta erdira arte. Dottorearena, Pinocchioarena... maskara jantztea da kontua. Ez badaukazu, ez da beharrezkoa, baina baldin badaukazu, bai; kiratsari aurre egiteko, besterik ez bada ere.

Maskara jantzi, beraz. Edo ez. Hori bai, ogitarako-



|||||imanol amiano|||


an, Illa'tar Salbatzaileraren *uno o dos metros* gutxi gorabeherako distantzia gorde; esenzialismorakoan, Urkullu'tar Iñigorenak: *uno o ninguno*...

Herrian metrorik ez daukagu, baina txakurrak eta umeak bai; 14 urte baino gutxiago badauzka, txakurra supermerkatu eraman dezakezu. Eta botikara, maskarekin. Edo alderantziz. Auskalo.

Autonomoak ere badauzkagu, gauerdiko loteria telematikoaren zain.

Dendak, jatetxeak eta tabernak ere badaude. Han txakurrik ez da. Haurrik eta autonomorik ere ez. Santa Amazonek gorde gaitzala.

Hau guztia bukatzen denean, halako batean bukatuko baita, bakoitzak jantzita duen maskara –edo ez, ez badaukazu, *yatusabes*– erantzeko ordua iritsiko da. Pinocchioaren ezkututzen dituztenak agerian jartzea zailagoa izango da. Ardurak latzak izango dira eta metro eta erdiko distantzia luzea da.*

galdetzen hasita, gure kontsumo ohiturak benetan aldatuko al ditu koronabirusaren pandemiak?  Uztarria

Koronabirusaren lezioak

Inork igarri gabe iritsi zaigu, gure ziurtasun guztiak hankaz gora jarri. Eta orain? Argi dago: elkarri eskua eman eta ziurgabetasunean aurrera egiten ikasi.

Gizadia inoiz izan den ahaltsuena izatera iritsia denean, mikroskopioan ere ikusten ez den birus nimoño batek erakutsi digu zeinen ahulak garen. Ahaltsuago eta etsaiago, etsaiago eta ahulago. Apalago eta elkartuago, elkartuago eta ahaltsuago. Gauden egoeran zeinen hutsal ageri diren gure etxeetako hainbat haserre eta ezineraman, gure legebiltzarretako hainbat liskar eta sesio, etorkizunerako dugun hainbat amets! Gure egotxoaren hego puztu birtual huts.

Arriskuan gaude, baina ez pentsa COVID-19a dugunik mehatxu larrien. Hiru dira gure etsai arriskutsuenak: aberastasunen gutizia, gorrotoa eta beldurra. Beldurgarriena, agian, beldurra bera. Birusa menperatuko dugu lehentxeago edo geroxeago, baina irabazi beharra menperatzen ez dugun bitartean, galduta gaude. Eta ez ahaztu: birusa ere natura da. Laster aurkituko



|||||joxe arregi|||

dugu gaitzaren aurkako txertoa, baina ez da nahikoa. Dozenaka enpresa handi eta estatu ahaltsu ari dira nork aurrena aurkituko, nork gehiago irabaziko. Pandemiak batetik libratu beste okerrago batean hondoratzen. Hazi eta hazi ari ginen, hazkunde zelakoan, bidea ez ezik, helburua ere. Irauli eskemak: bizitza ona da helburua, eta deshazten ikasten ez dugun bitartean ez gara ondo biziko. Ontasunik gabeko ondasunak ez gaitu zorionera eramango.

Normaltasunera noiz itzuliko ote garen peskizan gaude teleberriz teleberriz. Normaltasunera itzuli? Libiako eta Siriako gerren, errefuxiatuen, palestinarren, afrikarren normaltasunera? Urtean 9 milioi pertsona gosez hiltzen dituen normaltasunera? Pandemiak gero mundua izan daiteke askoz hobe edo askoz okerragoa. Denok gutxiagorekin zoriontsu izaten eta hurkoaren poza geure poz egiten ikastea eta botere handiek guztion onerako politika gauzatzea: hor dago koska. Dena dago jokoan.*



BALKOIA

AZPEITIKO SORMEN GUNEA

HITZA

IRUDIA

JOLASA

POLIZIA-LANA

PERFORMANCEA

LAPIKO-HOTSA

DANBORRADA

KARAOKEA

GORPUTZA

SOINUA

YOGA

ZUMBA

BINGOA

SPINNING

MOZORROA

ESKULANA



etorkizunerantz hezkuntza eraldatzen **batxilergoa**

aurrematrikulazioa 2020-2021

on-line eskabidea

2020ko maiatzaren 4tik 21*era

ikastetxean eskabidea

2020ko maiatzaren 11*tik 22*ra

* osasun-agintarien orientabideen eta balizko alarma-egoera
luzatzeak ezar lezakeenaren arabera.



azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943 15 12 46 • ikasberri@azpeitikoikastola.eus

www.azpeitikoikastola.eus



Udaberri kolorez

Aurrera doa udaberria, oharkabeen askorentzat. Izan ere, konfinamendua tarteko, nekez goza daiteke paisaiatz. Irudi ederrak utzi ditu, ordea. 📷 Alex Berasategi







Analisia egitea. Horixe eskatu dio Uztarriak ekonomia, informatika, politika, kultura nahiz gizarte arloan aritzen diren hainbat adituri. Hain zuzen ere, COVID-19ak utzitako krisiak eta ondorioek zer ekarriko duten azaldu dute zortzi herritarrek, bakoitzak beretik.

EIDER ALKORTA

||| Politologoa eta EHUko irakaslea

“Krabelinen Iraultzaren 46. urtemugan, Antonio Costa Portugalgo lehen ministroak honako hau zioen Twitterren: “Beti defendatu dut alarma egoerak ez duela demokrazia baliogabetzen. Gaur, inoiz baino gehiago, apirila ospatu behar dugu. Demokrazia, askatasuna, apirilaren 25a beti!”.

Costak esandakoak ez dira hitz hutsalak, COVID-19aren aterkipean, asko, gehiegi, izan baitira demokraziaren eta askatasunaren balioak zokoratu dituztenak, balizko ziurtasun eta ongizate kolektiboaren mesedetan. Komunitate edota kolektibo baten salbazioa helburutzat edota aitzakiatzat hartuta, ordezkari zein herritar ugari prest agertu dira beren eskubide indibidualei nahiz kolektiboari uko egiteko; tira, beraienei, eta herritar eta bizilagunenei ere bai. Bat-batean, Nietzscheren moralinaren txertoa hartuta, barnean zeukan polizia txikia ateratzeko aukera parekabea ikusi du zenbaitek. Hamaika ikusteko jaiok gara, eta gurean hain laidoztua izan den *salatari* hitza dagoeneko ez



Itziar Aranguren 'Psikobirusa' deituriko ilustrazioaren bidez egin du analisia. ||| Itziar Aranguren

Eta gero zer?

Hainbat arlotan aritzen diren adituei koronabirusaren krisiak utziko dituen ondorioez gogoeta edo analisia egitea eskatu die Uztarriak. 📝📷 Uztarria



da zigortu beharreko jokabidea, salatariak denon onurarako jokatzen du eta. Oharkabean eta ia erresistentziarik gabe, polizia kontrola ezarri da, eta hor dira herritar arduratsuak kontrol sozialaren gidari lanetan, George Orwellen 1984 liburua irudikatzen asmoz edo.

Batek baino gehiagok irudikatu nahi izan du balio komunitarioetan indartsua den eta elkartasunean nahiz zaintzan errotuta dagoen gizarte egitura. Hori eta ongizate kolektiboa benetako xedeak balira, gizarte justu eta solidarioa ekarriko liguke COVID-19ak. Gurean, besteak beste, iruzur fiskala desagertuko litza-teke, ez genuke bestaldera begiratuko beste-ek sufritzen dituzten injustizien aurrean edo ez genuke gizartean eta instituzioetan inolako segregaziorik bultzatuko eta onartuko.

Zer nahi duzue esatea, ez da hori pandemia-

ren ondorenean irudikatzen dudan gizartea. Ugariak dira fiskalizazioak eta sortu berri den "erantzukizun" sozialak zenbaitetan norabide eta eduki okerrak hartu dituzten zantzuak, eta erabakiren baten inguruan duda-mudak agertu dituen ongizate kolektiboaren etsai gisa seinatu da. Askatasun eta eskubide murrizketak hain modu naturalean eta azkarrean barneratzen dituen artaldeak beldurra ematen dit. Ez dakit non buka dezakegun jabetzen al garen, baina demokraziatik urrun legokeen sistema batean esango nuke.

COVID-19ak ondorio politiko, sozial eta ekonomikoak izango ditu, eta ekonomia arloko ziurgabetasunak eta beldurrak ondorio politiko zuzenak izaten ditu. Horrelako egoerak dinamika eta estrategia berriak martxan jartzeko aukeratzat ere ikus daitezke, baina kontserba-

durismoak garaile izateko aukera asko ditu partida honetan. Eta kontserbadurismoa teorikoki espektro ideologikoan oso urrun kokatzen diren espazio ezberdinetan barreiatzen da. Ezin dugu ahaztu gizakiok egoera berrietara egokitzeko dugun gaitasunaren parekoa dela pairatutako krisietatik edota egoera ezberdinetatik ateratzen den eskarmentu eskasa. Aurretik bizi izandako ekonomia krisiak dira horren adierazle; behin trumoi pasatuta, harri berarekin estropezu egiteko abilezia ikaragarria erakutsi baitugu.

Artikulu hau idazten ari nintzela, hauteskun-deak uztailean izatea nahi duela azaldu du Urkulluk. Urrun ikusten dut krabelinen iraultza, ez dira garai onak lirikarako".

PAKO ARISTI

Idazlea

"Geopolitika arloan, garbi ikusi da herrialde txiki-ek handiek baino hobeto kudeatu dutela arazoak; noski, estatua eduki behar horretarako. Europan, behintzat, Frantzia, Espainia, Italia eta Erresuma Batua desastre hutsa izan dira, Alemania soilik salbatu da; txikiak, aldiz, modu eredugarrian eraman dute auzia: Finlandia, Suedia, Grezia, Norvegia, Danimarka, Estonia, Islandia eta abar. Ongizatea estatu txikietan pausatuko da; handietan arazoak, xenofobia, arrazismoa eta fanatismoa (are gehiago) hedatuko dira.

Euskal Herrian inoiz baino garbiago ikusi dut Espainiarekiko nazka eta aspermena; Irungo muga ixteak garbi agertu du gure haustura nazionala. Euskaldunok geure kasa antolatuta beharrenean ideia nabarmen sakonduko da aurrerantz, aldaketa sakona behar dugula etorkizunak ekarriko dizkigun arazo ugari-eri aurre egiteko.

Ohitura mailan bukatu dira, puska batean, airezko bidaia luzeak. Mundua gure zerbitzura zegoen Disneylandia erraldoi baten gisan ikusten genuen, miseriak gogor jotako lurraldeetan erregeen gisan ibiltzen ginen gure azal zuri eta euro boteretsuekin. Bukatu dira Balin surf egitea, New Yorken erosketak eta Tailandian turismo sexuala. Noizean behingo operari izango dira bidaia luzeak, ez urteroko planak. Hurbilean dugun edertasuna baloratuko dugu inoiz ez bezala.

Ustez zorionaren osagai ziren gauza asko gutxietsiko ditugu orain, hura abusu bat zela ikusiko dugu. Gure bizitzan galdera hau planteatua dago: lehen egiten genituen gauza guzti haiek beharrezkoak al ziren? Erantzunetik sortuko da oreka berria, ala kaos handiagoa.

Diruaren banaketa izango da gizarteko borroka nagusia, alegia, enplegua, soldatak, kredituen interesak eta subentzioak. Dirua ez baita desagertu; lehen zegoen adina dago, eta gehiago ari dira botatzen makinetan. Dirua gugana iristeko bideak ireki nahiko ditugu, jakinik daukatenez bide horiek itxiko dituztela etengabe, eta gupidagabe.

Liburuei dagokionez, salmenta izugarri jaitziko da, auto laguntzakoena salbu. Emozio motela eskaintzen du liburua, eta jendeak estimulua gogorragoak nahiko ditu, liburua itxialdia gogoraziko baitio jendeari. Jaurlaritzari ez diot entzun liburua eta liburu dendak salbatazeko asmorik; bai, ordea, temati AHT egiten jarraitzeko asmoa. 500.000 biztanleko liburu denda bat geratuko da, enporio komertzial espainolak kenduta: Araban bat, Nafarroan eta Gipuzkoan bi, Bizkaian hiru eta Iparraldean bat ere ez”.

MARI JOSE ARANGUREN

Ekonomian doktorea eta Orkestra Euskal Lehiakortasun Institutuko zuzendaria.

“Gure ahultasun maila nolakoa den konturatuko gara. Koronabirusa gisako kanpoko faktore batek gure bizitzetan zenbaterainoko eragina izan dezakeen jabetzera eramán gaitu krisi honek. Izan ere, psikologikoki oso mugatuak garen sentipena sortu digu. Horrez gain, bizitzan zer gauza diren garrantzitsuak ikusten lagunduko digu. Hau da, konturatuko gara, bizitzarako eraikita genituen hainbat eta hainbat behar artifizialak direla, eta ez direla hain erdigu-nekoak. Gure bizitzako zutabe garrantzitsuak non dauden ikusten lagunduko digu, eta zer ez den garrantzitsu bereizten ere bai. Dena den, gerta daiteke hau guztia ahaztea ere... Behin etxetik ateratzen hastean, ahaztu egingo ote zaigu hau dena?”

Ekonomiari dagokionez, uste dut globalizazioak eta kanpo merkataritzak indarra izaten jarraituko dutela, baina zalantzan jarriko dugu gauza bakoitza non eta nola ekoizten den: zer erosten dugun kanpoan, zer ekoizten dugun hemen... Orain arte, ekonomian *just in time* deituriko tendentzia izan da indarrean; hau da, biltegietan ahalik eta gauza gutxien izatea eta piezak ahalik eta merkeen eskuratzea beste herrialdeetan, gure produktua modu efizienteagoan egin ahal izateko. Hori guztia zalantzan jarri du koronabirusaren krisiak, une batean hornidurarik gabe geldituz gero, ekoizpen prozesu osoa gelditzen delako. Beraz, agian, hainbat ekoizpen herri mailan egingo dira he-

mendik aurrera; ekoizpena egiten den lekuan eta egiteko moduan aldaketa eman daiteke.

Horrez gain, krisi honek eragina izango du digitalizazioaren eta mugikortasunaren arteko dikotomian. Gutxiago mugituta eta baliabide digitalak erabilia, ondo funtzionatzen dugula ikusten ari gara. Uste dut mugikortasun maila jaitzi dezakegula digitalizazioaren mesedetan. Hori egiteak, adibidez, klima aldaketan eragin positiboa izan dezake, lana modu eraginkorragoan egitea ere ekar dezake, eta kontziliazioa erraztu ere bai. Baliabide digitalak erabilia eta mugikortasuna jaitzita, oreka aurkituko dugu”.

MIKEL IZURIETA

Ekologia ekintzailea

“Berrogeialdiak pentsatzeko denbora ugari eman digu. Dena gelditu da, gure burmuinak izan ezik. Inork ez digu inoiz erakutsi gure buruarekin bakarrik egoten, eta bat-batean, gure buruarekin hitz egiten ikasi beharra izan dugu.

Gizadi berri baten hasieran geundela iradokitzen zuten lehen egunek, gizakion aktibitatea gelditzeak onura ekologiko asko ekarri baitzuten. Zeruak garbi, urak garden, txoriak kantari, animaliak errepideen jabe... patuaren mezu bat izango balitz bezala, guztiok Twitterren txioka, iraultza baten presentzian bageunde bezala.

Berrogei egun etxean igaro ostean, ordea, errealtatea desberdina da, edo horrela nahi digute saldu. Jada aste batzuk badaramatza lanean zenbaitek, beldurrez baina derrigortuta. Irudiek, baina, hirietako jendetzak erakusten dituzte. Azkar amaitu zaigu kolektiboa maite genuen amets hura, ekonomiak eta indibidualitateak kolpez esnatu gaituzte. Lehenago edo beranduago etxetik irten beharko dugu, ordea, urri edo oparo, denok behar dugu dirua bizirauteko. Jar dadila ekonomia martxan!

Krisiak ekonomiaren berpiztea ekarriko du, eta berpizteko, besteetan funtzionatu duen formula erabiliko da: industria. Aditu askok iragarri duten bezala, industria prozesuak berriz lokalizatuko dira, etorkizun ezegonkor honi aurre egiteko. Nola eragingo dio horrek, ordea, arnasten dugun aireari, zeruaren koloreari, uraren gardentasunari edota txorien kantuei?

Zenbaitek Kapitalismo Industrial bezala eza-gutzen duen egungo sistema erregai fosiletan dago errotuta, eta bata ezin da bestea gabe ulertu. Erregai fosilek CO2 ugari isurtzen dute energia eraldaketa prozesuan, eta energia edozertarako behar dugu: produktuen garraioa, ekoizpena, pertsonen mugikortasuna... Krisialdiak iriteteko, beraz, gehiago ekoiztu eta kontsumitu behar da. Energia gehiago behar

dugu, beti gehiago. Ekonomia hazteko erabil-tzen bada, kutsadura ez dago horren gaizki.

Bestalde, eraldaketa ikusiko dugu datozen urteetan. Energia berriztagarriek gorakada handia izango dute. Erregai fosilen ustiaketak gero eta energia nahiz ekonomia errentagarritasun txikiagoa du, eta aldiz, berriztagarriak gero eta efizienteagoak dira. Energia ekoizpenak, ordea, zeresan handia du herrialdeen arteko botere harremanetan; geopolitikak gizakion existentziak baino gehiago balio du, tamalez. Beraz, zaila da asmatzea benetako trantsizio energetikorantz goazen edo berdez tindatutako etorkizun beltzerantz.

Baina baliabide finituak dituen planeta batean infinituki haztea ez da bideragarria, energiaren jatorria dena delakoa izanda ere. COVID-19a ez bezala, klimaren krisia ez du txerto batek konponduko, berotegi efektuko gasen isurketa murrizteak eta erregai fosilekiko dugun menpekotasuna mozteak baizik. Eta gero eta denbora gutxiago daukagu horretarako.

Egoerak ekarritako digitalizazioaren ondoren, teknologiek mundua mugiarazten duten una helzten denean, irauingitze arriskuan dagoen espeziea gailu oharu eta mobilizatuko al gara? Edo Jon Kortajarenak bezala, patata tortilla bizikletan ekartzeko eskatuko dugu?

Eboluzioa edo inboluzioa, batek daki”.

OIHANA ELDUAIEN

Kazetaria

“Beti izan naiz txarra iragarpenak egiten. Ez dakit koronabirusak zer eragin utziko dituen zuzenean gure osasunean, baina albo kalteak utziko dituela, seguru. Nola geldituko gara psikologikoki? Nola geldituko dira gure umeak hila-bete baino gehiagorik etxean sartuta eta lagunekin egoteko aukerarik gabe izan ondoren? Nola geldituko dira gure zaharrak, etxean, mimatuko eta animatuko dituzten biloba, seme-alaba, lagun edo dena delakorik gabe egon ostean? Eta nola gu? Izaki sozialak izanik, barkadadera bultzatu gaituztenak?”

Eta gero? Nola izango dira gure harremanak gero? Elkarriz musu ematera gerturatuko al gara? Edo kutsatzeko beldurra izango dugu? Harremanetarako gaitasuna ez zaigu murriztuko? Gaitasuna, gogo, joera...

Beldurra nagusi. Beldurra eta autoritarismoa. Elkartasun sareak sortu dira, eta pozgarria da, baina kontrapuntu gogorra ere ikusi dugu: elkartasun eta enpatia eza. Balkoietako poliziak, bizilagunak salatu dituztenak... Ez digute utzi krisi honen kudeaketan iritzia emateko zirikiturik. Ez digute eman arduratsu izateko



Ezkerretik eskuinera, Alkorta, Aristi, Aranguren, Izurieta, Elduaien, Azpillaga, Ibarguren eta Alcedo.

aukerarik. Kartzelan sartu gaituzte, eta kito. Geure etxeetan, bai, baina preso. Horrek zer ondorio utziko du? Estatuaren indarra, Espainiaren zentralismoa, autoritarismoa, ezina...

Argi gelditu den beste kontu bat: kapitalaren indarra. Ekonomia ez dadila gelditu. Ez behintzat ekonomia handia. Eta txikia? Kaleak betetzen eta bizirik mantentzen dituzten dendak, tabernak eta abarrak? Itxita. Derrigorrez. Baina kapitalak jarraitu behar du, eta ordaindu zure kuota guztiak. Ezin duzu arroparik saldu, baina denda handiek salduko dute nahi duten guztia Internetez. Internetez erosketak egiten ohituta ez zeudenak ere ohituko ziren egun hauetan ziurrenik. Erraza da. Itzuliko al gara denda txikietara? Denok nahi ditugu denda txikiak, denok nahi dugu bizia kalean, baina... itzuliko gara? Gure poltsikoak utziko digu?

Eta kultura? Zerk lagundu digu itxialdi hone-tan? Filmak, liburuak, hainbat plataformetako antzerkiak, kontzertuak... Baina noiz? Noiz itzuliko da hori bere onera (inoiz bere onean egon bada)? Azpeitiak kulturaren zentro izate segituko al du? Gauza bat argi dago: kul-

tura behar-beharrezkoa dugu, ez bakarrik itxialdia arintzeko, baita pentsatzen laguntzeko ere. Eta sortzaileak ez ditugu zaintzen.

Sare sozialen, bideo deien, telelanaren eta komunikabideen itxialdia izaten ari da. Komunikabideak. Hain desprestigiatuta zeuden haietara jo dugu informazio bila. Komunikabideek (batzuek) ikaragarriko lana egin dute herritarrek informatzeko. Eta argi gelditu da haien beharra. Jakingo al dugu hori konpentsatzen?

Jakingo ote dugu hainbeste txalotu dugun osasungintza publikoa defendatzen? Zaintza erdigunean jartzen? Benetan beharrezko direla agerian gelditu diren sektore zapalduenak prestigiatzen? Jakingo al dugu? Edo kapitalak markatuko al du bidea, hemendik aurrera ere?

Ez naiz ona iragarpenak egiten. Zerbaitegatik da nire lana galderak egitea, ez erantzutea. Baina bi aukera nagusi ikusten ditut: itxialdian asaldatu gaituzten gauzak aldatzeko bidea hartzea, kolektiboki; edo, bizimodu normalera itzultzen garenarekin batera, asaldua guztiak ahaztu, eta gutxieneko bizi-baldintzei eustea

lortzen baldin badugu behintzat, bertan goxo geratzea, indibidualki. Badakit zer nahi dudana, baina ez naiz ona iragarpenak egiten”.

JOSU AZPILLAGA

||| **Industria ingeniaria eta Codesyntax enpresako berrikuntza proiektuen koordinatzailea**

“Teknologia digitalei eta IKTei erreparatuta, koronabirusaren astinaldi honek ekarriko dituen aldaketak lehendik abiatuta zeuden joera batzuk indartzearen eta intentsifikatzearen ondorioz etorriko direla iruditzen zait. Sumatu dira joera horietako batzuk itxialdiko egunetan ere. Hona hemen, nabarmenenetako batzuk:

1. IKTek, konektatutako gailuek eta pantailek toki handia zuten, dute eta izango dute geroan ere. Joera areagotu egingo da.
2. Denok ez gaude, baina, egoera berean. Gero eta gehiago hitz egingo da arrakala digitalaz eta konexio eskubideaz, eta hori ez dute enpresek eta operadoreek bermatuko.
3. Telelana, telebilerak, teleirakaskuntza, tele-

medikuntza, telezaintza... Ez oraino intentsitatez, baina naturalago txertatuko ditugu egunerokoan, eta zenbait ohitura ordezkatuko dute.

4. Osasuna eta pribatutasuna kontrajarriko dira, 2011ko segurtasuna *versus* eskubideak haren ildotik. Garbi ikusi da egunotan, GPS eta *bluetooth* bidezko zenbait jarraipen aplikazio direla eta. Pribatutasunak galdu egingo du.

5. Gure datuak enpresa handien esku daude. GAFA (Google, Apple, Facebook, Amazon) delakoei, bankuei eta operadorei sekulako indarra ematen die horrek, besteak beste, politika publikoak diseinatzen. Datuen jabetza-aren gaia agendan egongo da, eta erakunde publikoak edo bestelako ekimenak saiaturiko dira egoera iraultzen, baina kostatuko zaie.

6. Saltoki elektronikoaren goranzko joera bizkortu egin da, eta ez da geratuko. Saltoki txikiagoei zuzendutako aplikazio eta teknologia garapen saiakera ugari ikusiko dugu.

7. Sarean edukia ordaintzen ohitzen ari gara, batez ere, *streaming* plataformei esker. Masi-boagoa izango da. Hedabide digitalek, erreferentzialtasuna irabazita, eredu horretara gerturatu nahiko dute orain baino modu nabarmenagoan. Euskararentzat nekez balioko du eredu horrek, bere horretan behintzat.

8. Osasunarekin zerikusia duten aplikazio harri-garriak ikusiko ditugu mugikorretan. Datuak, berriro, eta adimen artifiziala.

9. Adineko pertsonentzako teknologiararen *boom* bat biziko dugu: gailu bereziak, errealitate areagotua, zaintza sistemak, komunikazioak, parametroen kontrolekoak eta abar.

10. Teknologia digitalak zeharka ukitu dituen sektoreak bizkortu egingo du transformazioa.

11. Teknologiararen zentralitate horren guztia-aren eta pribatutasun galeraren aurkako ahotsak eta mugimenduek indarra hartuko dute.

Halere, aldaketa handienak beste arlo batzuetan –ekonomia, politika, gizarte antolaketak, aisialdi ohiturak, kultura, lidergoa...– izango dira. Lehendik zetozen eta itxialdiko egunotan azkartu eta azaleratu diren joerak identifikatzea txarra ez, zer datorren irudikatzen.

LEIRE IBARGUREN

III Bilgune Feministako kidea

“Mundua baino bizimodua da aldatuko dena, eta ez du birusak aldatuko, guk baizik, birusarekin elkarbizitzeko erakusten dugun gaitasunaren arabera. Lurra planeta ez da gizakiona, nahiz eta horrela bailitzan jokatzen dugun. Planetak milioika urte egin ditu gure espezierik gabe, eta aurrerago ere egingo ditu ziurrenik. Gure buruak ez ditugu

zaurgarriztat, eta hori da arazoa. Kapitalismoak ukatu egin du gure zaurgarritasuna, lehenetasuna kapitala pilatzean jarriz eta bizitzak bazterrean utziz.

Ez dakit nolakoa izango den konfinamendu ondorengo jendartea, baina agerian gelditu da bizitza zerk sostengatzen duen eta lan horietan zein eta zer baldintzetan aritzen diren. Osasungintzan egindako murrizketen faktura iritsi da, eta garbitzaileen nahiz zaintzaileen greben zergatia ulertuko ote genuen honezkerok!

Koronabirusak ez omen du klase, arraza edo genero bereizkeriaz ulertzen, baina horri aurre egiteko baliabideek eta neurriek bai. Paperik gabekoak, etxean indarkeria jasaten duten emakumeak, kontratu gabekoak, presoak eta nerabeen nahiz haurren beharrak ahaztu dituzte enpresen beharrei adi hartutako neurriek.

Eta horren guztia-aren erdian, nire iritzi kezka-garriena, bizitzaren kontra modu zuzenean egiten duen neurria. Bizitza duin bat ezin dut ulertu heriotza duinik gabe. Gobernuak behartuta, gure lagunak eta senideak bakarrik ari dira hiltzen. Nola da posible estatuak gure bizitzetan halako interbentzio bat egiteko eskumena izatea? Beldurra zabaldu da, eta askotan, beldurra bera beldurtzen gaituena baino arriskutsuagoa izaten da. Bestela, nola izan dezakete polizia eta armadak gure kaleetan halako biolentzia eta inpunitatez aritzeko zilegitasuna?

Hainbat politikariren lehentasunak zein diren ere agerian gelditu da. Horien ahotik entzundu dugu “normaltasun berria” etorriko dela konfinamenduaren ondoren, eta herrigintza feminismitik egin nahi dugunontzat susmagarria izango da beti “normaltasuna” hitza; ez dugu “normaltasunik” nahi.

Bestelako gauzak ere azaleratu dira, eta horietan jarri behar dugu arreta eta indarra. Herritar zaintza sareak, komunitatearen kohezioa, elkar babestearren egiteko prest gaudea, elkartzasuna, herritarren eta udalaren arteko elkarlana herri batzuetan (gurean kasu), osasungintzan eta zaintzan dabilzaneiz aitortza herritarra (aitortzatik haratago joan behar luke). Gure zaurgarritasunaz kontziente, balio horietan oinarritzen den bizimodua ere eraiki dezakegu konfinamenduaren ondoren, eta eredu batera edo bestera jotzen dutenen indar korrelazioak baldintzatuko du dena. Beraz, ezinbestekoa izango da herritarrok adi, kritiko eta aktibo, kolektiboan aritzea”.

MIREN ALCEDO

III Epategiko langilea

“Justizia arloak oinarritzko bi zutabe ditu gure

lurraldean: epaileak (ebazpen judizialak egiten dituzte) eta Eusko Jaurlaritza (eraikinak eta langileak jartzen ditu). Legeak eta langileei buruzko araudiak Espainiako Gorteek egiten dituzte. Korapilo horretan justizia ezkutatu ohi da.

Itxialdian bi erabaki deigarri hartu ditu Justizia administrazioak: *Herriko tabernen auzi* politiko eta polemikoaren epaiaren exekuzioa martxan jarri da –justizia errestituratuaren orde, betiko zigorra–; eta ELA sindikatuak auzitara eraman du Aldundia, Tolosako eta Ordiziako adinekoen egoitzetan COVID-19a kudeatu den moduagatik –lan arloko epaitegiek artxibatu egin dituzte horiek–. Itxialdian ere, botere judizialak boteretsuen alde jarraitzen du.

Krisi honetan, justizia langileekin ere erabili du administrazioak ohiko autoritarismoa: bat-bateko neurri asko hartzen ari dira, baliteke beharrezkoak eta onargarriak izatea, baina langileen ahotsa entzundu gabe ari dira inposatzen. Krisialdian sistemaren zuloak agerian geratu dira: Espainian edo Katalunian telelana egin dute, eta hemen ezinezkoa izan da. Lehen eredugarria zen sistema informatikoa, guztiz zaharkituta dago orain.

Justizia zerbitzu askotan lan baldintza kaskarrak izan dira orain arte; batez ere, behar baino langile gutxiago daudelako. Horrengatik pilatzen da lana. Orain egoera larriagotu egin da, bertan behera geratutako prozedurak martxan jarri behar direlako berriro eta abokatuen bulegoetan geratutakoak aurkezten hasi direlako. Judizialki konpondu beharreko gatazka asko sortu dira –senideen artekoak, lan edo etxe kaleratzeko, laguntzak lortzeko administrazioaren kontrako auziak...– krisialdiaren ondorioz. Erronkaren aurrean aukera batzuk baditu administrazioak: bata, langile gehiago kontratatzea; bestea, langile kopurua mantentzea. Eusko Jaurlaritzak ez du lehen aukera aipatu orain arte; beraz, lana are gehiago pilatuko da. Bada lana arintzeko beste aukera bat ere: pribatizazioa. Prokuradoreak aspalditik ari dira jakinarazpenak eta zitazioak egitea eskatzen. Orain, atzerapenaren aitzakiapean, berriro egin dute eskaera.

Enpatia eza leporatzen diote gure kolektiboari. Egia denez, era mekaniko batean egiten dugu lan gehiegitan; prozeduretan parte hartzen dutenei aurpegia jartzea kostatu egiten zaigu. Orain, maskararekin mozorrotuta, lana pilatuta, despertsionalizazioa handitzeko arriskua hor dago.

Betiko tresna eta kontzeptu zaharrak erabiltzen jarraitzen badugu, autoritarismoa nagusi bihurtuko da, bide errazagoa delako, baina justizia are urrunago egingo da”.*

Batxilergoa

AURREMATRIKULAZIOA 2020-2021



IRAURGI

ikastetxea



Banakako kontsultak ikasketa buruarekin eta orientatzailearekin

Hitzordua zehazteko, deitu 943 81 02 10

www.iraurgi.eus

MILAR
LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak


Cooking
& Chef



BEHAR BEHARREZKO ETXETRESNAK ETXERAINO

608 31 30 47
www.milar.eus

zuekin beti
orain inoiz baino gertuago



ELKARREKIN
TXAPELDUN

Ondokoa etxeko

Itxialdiak harreman berezia sortu du auzotarren artean. Askotariko ekintzen bilgune bilakatu dira teilatupeak. 📌📍 J. Frantzesena / A. Izagirre / I. Elustondo

Koronabirusak etxean barkartuta egotera behartu ditu herritarrak, eta askorentzat bizilagunak familiaren parte bilakatu dira, etxeokak. Hainbat auzotako bizilagunek beren esperientzia azaldu dute.

J. ANTONIO AGIRRE PLAZA

Martxotik hona, Azpeitiko auzorik martxosoenetariko bat bilakatu da Sanjuandegiko Jose Antonio Agirre plaza; auzotarrek ez dute balkoietara atera eta dantzan eta abesten has-teko abagunerik galtzen. Hango bizilaguna da Paola Moto (Azpeitia, 1994), eta balkoietan “jende asko” ikusten duela aitortu du: “Kalera ateratzeko gogoia sumatzen dut azken asteetan, baina jendea ondo ari da betetzen agintarien mandatuak. Balkoietan jende asko ikusten dut, eta poza ematen dit horrek”.

Konfinamenduaren lehen egunetan, auzoko DJ bat musika jartzen hasi zela, baina bizilagun batzuen kexak medio, musikaren ordu-tegia murriztu behar izan zuela azaldu du Motok. Orain, beste auzotar bat aritzen da musika jartzen; 19:30ean hasita, hiru ordu laurdeneko saioa egiten du. Motok azaldu duenez, auzoan musika jartzen hasi ziren horien aldeko lapiko-jotzea ere egin zuten, auzotar asko ez baitzeuden konforme kexarekin.

Argi du Motok: alarma egoeraren bueltan Jose Antonio Agirren sortutako giroak bizilagunen arteko harremana hobetzeko balio izan



Paola Moto eta haren ama balkoian.

du. “Supermerkatuan edo okindegian auzokoa ikusi eta hizketan hasten gara orain. Balkoietan gaudenok ere, begiratu eta irribarre txiki bat egiten diogu elkarriri”. Azpeitiarraren arabera, Jose Antonio Agirreko auzotarrak parte-hartzaileak dira, oro har: “Bada balkoira ateratzen ez den jendea ere, baina batzuk eguneroko irtetzen dugu”. Badu une gogoangarri bat Motok. Konfinamenduko egun batean, Whigfield abeslari daniarraren *Saturday Night* kantaren koreografia osoa egin zuen auzotar batekin balkoitik balkoira. “Halako momentuak sortzen dira”, azaldu du.

Martxoan eta apirilean, musikaz gain, beste hainbat ospakizun ere izan zen Jose Antonio Agirre plazan. Aberri Eguna berezia izan zela

du. “Supermerkatuan edo okindegian auzokoa ikusi eta hizketan hasten gara orain. Balkoietan gaudenok ere, begiratu eta irribarre txiki bat egiten diogu elkarriri”. Azpeitiarraren arabera, Jose Antonio Agirreko auzotarrak parte-hartzaileak dira, oro har: “Bada balkoira ateratzen ez den jendea ere, baina batzuk eguneroko irtetzen dugu”. Badu une gogoangarri bat Motok. Konfinamenduko egun batean, Whigfield abeslari daniarraren *Saturday Night* kantaren koreografia osoa egin zuen auzotar batekin balkoitik balkoira. “Halako momentuak sortzen dira”, azaldu du.

DAMASO AZKUE

“Balkoietan elkartzean, hizketan aritzen gara, eta txantxetarako uneak ere izaten dira. Gero, baina, beste kontu bat da bakoitzak nola da-

raman konfinamendua". Ianire Sagarnaren (Azpeitia, 1997) hitzak dira. Damaso Azkue auzuneko bizilaguna da, eta alarma egoera ezarri zutenetik girorik ez zaie falta han. "Damaso auzo parrandero samarra da, eta horrek ere laguntzen du", aitortu du.

Bingo eta musika saioekin hasi zena, danborradara, trikiti saioetara edo urtebetetze ospakizunetara zabaldu dute. "Larunbat gauetan eta igande eguerdietan musika jartzen dugu, eta balkoiak apaindu izan ditugu egun jakinetan". Gainera, badira Damasoko festa usainera gerturatu diren herritarak. "Soreasu auzuneko jendea ere batzen da festara, musika handik ere entzuten baitute; mugikorren argiak pizten dituzte han daudela adierazteko. 20:00etako txaloen ostean, trikiti pieza batzuk jotzen dituzte Soreasuko bizilagun batzuek, eta ondoren, Damasokoek".

Hiru lagun aritzen dira antolaketa lanetan, Whatsappez, eta Sagarnak zubi-lanak egiten ditu gero: "Auzoko festetarako dugun taldera bidaltzen ditut mezuak, gainerako auzotarrek ere jakin dezaten zer prestatu dugun". Egitasmoek "erantzun ona" izaten dutela azaldu du: "Jendea gustura egoten da, hori adierazten digute txaloen edo garrasien bidez".

Konfinamendua hasi aurretik ere ezagutzen zuten elkar auzotar gehienek. Hala dio Sagarnak: "Laratz taberna bertan izateak ere lagundu du harremanetan, eta zer esanik ez auzko festa ospatzeak". Hark uste du konfinamendua harremanak sartzeko baliagarria izan dela: "Orain jende gehiago ikusten da balkoietan, bizilagunekin hitz egiten, kantuan... Bakoitzak bere bizimodua egiten zuen orain



Balkoian egiten dute bingo saioa Marian Urangak eta Zerraldeko bizilagunek.

arte, eta ez ginen jabetzen inguruan genuen guztiarekin. Dena den, hau bukatzean ikusiko dugu gauzak aldatu egin diren edo lehengora itzultzen garen".

Jai giroko ekitaldiak "ondo eta errespetuz" egiten dituzte, badakitelako auzoan jende asko bizi dela eta denek ez dutela festarako gogo bera izango. Dena den, ekitaldiak antolatzeari uztea burutik pasatu ere ez zaiela egin azaldu du. "Gogoia eta umorea dugun bitartean eta jendearen erantzuna jasotzen badugu, aurrera segituko dugu". Hala dio: "Damaso auzo ederra da: festa girorako prest egoten da jendea, elkarrekin kontaktzen dugu laguntza behar dugunean... Jaietan ere islatzen da hori;

batzuk aritzen gara antolatzen, baina egunean bertan asko laguntzen du jendeak".

URRESTILLA

Urrestillako hainbat txokotatik entzun daitezke Zerraldeko auzotarrak bingoan jolastean. Marian Uranga (Urrestilla, 1962) da bingo antolatzen duen bizilagunetako bat, itxialdia hasi zenetik dihardu horretan. "Astean behin hasi ginen bingoa egiten, eta orain, lau egunetan egiten dugu". Etxean egindako bingoa ateratzen du Urangak balkoira: "Etxean lepo-ko bat topatu genuen, eta hari bolak kendu eta zenbakiak jarrita, bingo bat egitea otu zitzaigun". 3-10 urte bitarteko hamar ume inguru bizi dira Zerraldeko etxebizitzetan, eta hasieran, ume haiekin marrazkiak egiten hasi zirela azaldu du Urangak; ondoren etorri zitzaizaien bingoaren ideia.

Jokoa hastera doala jakinarazteko, bozgorailutik bi kanta jartzen ditu Urangak: Auntxa trikitalari urrestildarraren kalejira eta *Urrestilla herria da abestia*. Orduan, Zerraldeko bi etxebizitza blokeetako haurrak, gaztetxoak eta helduak balkoietara ateratzen dira, eta bingoa hasten da; 19:00 inguruan hasi eta 20:30 ingura arte irauten du. Guztira, hemeretzi bat pertsonak parte hartzen dute jokoa, eta sailkapena osatzen du Urangak: "Linea egiten duenak bost puntu lortzen ditu, eta bingo egiten duenak hamar. Eguneko sailkapena bidaltzen dugu Whatsapp taldera".

Lehendik ere bazuten harremana Zerraldeko auzotarrek, baina konfinamenduak harremana hobetzeko balio izan duela azaldu du:



Ianire Sagarna balkoian, Espainiako Errege Kopako finala jokatzekoak ziren egunean.

“Urrestilla herri txikia da, eta denok ezagutzen dugu elkar, txikiteoan-eta elkarrekin ibiltzen baikara. Halere, konfinamenduak harremana zabaltzeko balio izan du”.

Urrestillako bizilagunak dioenez, bingoan ehun puntu lortzea jarri zuten hasieran helburu, baina jokoak izan duen arrakasta ikusita mila puntura luzatzea aztertzen ari dira: “Jendea nazkatzen den arte jarraituko dugu bingoa egiten. Momentuz, ez dugu saririk jarri, baina ikusiko dugu gero zer egiten dugun, askariren bat edo...”. Urrestildar asko Zerraldeko bingoari begira egongo dela aitortu du Urangak: “Herri txikia izanik, Urrestillan leku askotatik entzungo da bingoa, eta jendeak enbidia apur bat pasatzen duela ere esango nuke”.

LOIOLABIDE

Etxean sartuta egon behar den eta mundua geldirik dagoela dirudien honetan, bizitzak aurrera jarraitzen du. Baita heriotzak ere. Apirilaren 1ean hil zen Mikel Itulainen (Azpeitia, 1970) ama, minbiziarekin. Koronabirusa tar-teko, orain arte hain ohikoak izan diren agurrak ukatu dituzte, baina horren faltan, auzoaren elkartasuna eta babesua sentitu ditu Itulainenek. Loiolabiden bizi zen ama, eta senitartean nahi bezala egin ezin izan zioten agurra auzoan egin zioten. “Emozionantea” izan zen.

“Barrua mugitu zidan gertatu zenak. Ama hil eta berehala, gure amaren bizilagun batek egun horretako balkoietako txalo zaparrada –eta minutu bateko isilunea eta kandelak ateratzea– gure amaren oroimenez egiteko baimena eskatu zigen. Gure baietzaren on-



Mikel Itulain gurasoen etxean.

doren, horrelaxe egin zuen bere balkoitik”, azaldu du Itulainenek. Balkoietatik egindako ekitaldi xume horrekin agurtu zuen auzoak, beraz, Itulainen ama. “Nik ez nuen horrenbeste harremanik bizilagun horiekin, eta ziur aski, horrek mugitu zidan barruan zerbait. Harremanik ez duzun jendeak horrelako zerbait egitea... Amak, badirudi, bizilagun batzuekin hartu-eman estua zeukala”.

Auzoak adierazi zuen elkartasuna ikusita, zera pentsatu zuen Itulainenek: “Hainbeste me-rezi zuen gure amak”. Ama nolakoa izan zen pentsatzera eraman du gertatutakoak: “Ona behintzat bazen; sentipen horrekin gelditu naiz”. Esker ona sentitu zuen Itulainenek auzotarren aldetik. “Sentitu nuen jende ona badagoela oraindik. Bultzada bat eman zidan gertatu zenak; ‘dena ez dago galduta’, pentsatu nuen”.

Konfinamenduan jendearen onena eta txarrena ateratzen ari dela diote, baina gauza onei erreparatu die Itulainenek. “Konbentziturata nago txarrerako ez dela izango; gauza onak ekarriko ditu honek. Elkartasuna, batez ere. Edozein momentutan nola alda daitekeen dena... Konturatu gara ez garela ezer eta denon beharra daukagula. Umilak izan behar dugu, hainbeste harrokeria gabe. Elkarrri lagundu eta gauza onak opa behar dizkiogu. Alderdi hori atera daitekeela pentsatzen dut. Esperantza badaukat”.

ENPARAN KALEA

Espainiako Gobernuak konfinamendua agindu bezain laster hasi zen Enparan kalean musika eta festa. Garazi Santestebanen (Azpeitia, 1992) arabera, lehen egunak “oso ederrak” izan ziren, eta jende asko atera zen balkoietara abestera eta dantzatzera.

Santestebanek dioenez, lehen egunetan beste auzotar batzuk hasi ziren musika jartzten, baina beraiek etxean bozgorailu handi bat zutenez, erreleboa hartu zieten haiei: “Hasieran, ostegunetan, ostiraletan eta zapatuetan hasi ginen musika jartzten. Une batetik aurrera, ordea, musika jartzea ohikoa bilakatu zen, eta orain, zapatuetan bakarrik jartzten dugu”. Lehen, 21:00etatik 21:45era arte luzatzen zuten saioa. Egun, baina, 20:30ean hasten dira musika jartzten, eta tarte laburragoan aritzen dira horretan. Musika aukeratzekoan, arrakasta duten abestiak errepikatzen dituztela dio Santestebanek.

Enparan kalekoak “auzotar martxosoak” direla azaldu du: “Danborradako kantu bat jarriz gero, auzotarrak balkoietara sardeskak eta goilarak eskuetan atera eta baranda jo-



Garazi Santesteban eta Ibon Guridi musika jartzten aritzen dira Enparan kalean.

tzen hasten dira". Dena den, aitortu du hasierako egunetan animo gehiagorekin zegoela jendea. Halere, oraindik ere balkoietan "dezenteako ambientea" egoten dela esan du.

Auzotarren arteko harreman sarea hobetzeko ere balio izan die konfinamenduak Enparan kaleko auzotarrei. Santestebanek dio balkoiak "sozializatzeko gune" bilakatu direla, eta lehen elkarren artean ezagutzen ez ziren auzotar askok elkar ezagutzen dutela orain: "Orain badakigu lehen ezagutzen ez genituen auzotar askok non egiten duten lan, seme-alabarik ba ote duten, nola doakien konfinamendua... Gure arteko harremana sakondu egin da". Bestalde, auzoko haurrek eta gaztetxoek beren artean harremana egin dutela ere azpimarratu du azpeitiarrak.

Gaur-gaurkoz musika jartzten jarraitzeko asmoa dutela iragarri du Santestebanek, eta azpimarratu du ez dutela bizilagunen kezarik izan orain arte: "Auzotarrei esan genien kezarik bazuten jakinarazteko". Kalera ateratzen uzten duten momentua "kolosala" izango dela ere nabarmendu du hark, eta horren berri izatean bi orduko musika saioa egingo dutela ere bai, ospatzeko.

ARAUNTZA

"Ondo, baina pixka bat aspertuta" dago Jon Alberdi (Azpeitia, 1999). Arauntzan bizi da, herrigunetik aparte eta naturatik hurbil. Baserrian ari da konfinamendua igarotzen, etxekoekin batera. "Aguantatuko dugu, baina azkeneko kontua luzatzen ari da, eta aspertzeko ari gara. Baina egoera zein den ikusita, uste dut etxean egotea dela onena".



Maixol Rezabal mozorrotuta.



Jon Alberdi lanean, baserri atarian.

Bizilagunen komunitateak sortu diren honetan, badira konfinamendua nahiko bakartuta pasatzen ari direnak ere. Horietako bat da Alberdiren familia. "Hemen, gure baserria baino ez dago. 800 metrora dago Odria baserria, eta Etumeta aldera, beste baserri dezente daude. Gertuena ditugun bizilagunak 800 metrora daude".

Baserrian bizitzea askotan kalterako izaten den arren, "parrandatik itzultzeko eta", oraingo honetan, zorteko sentitzen da Alberdi. "Pilotan ezin dut egin, baina eskuak mantentzen saiatzen naiz. Garajeen-eta pilotak pixka bat ukitzen ditut; egia esan, hemen bizita, fisikoa lantzeko nahikoa leku daukat. Etxe ondoan esprint batzuk egiteko tokia ere badut. Bizi naizen lekuak abantaila dezente dauzka, alde horretatik".

Kaleko pisu batean entrenatzea "nekeza goa" izango litzatekeela uste du pilotariak.

Honela igarotzen du eguna Alberdik: "Goizean jaiki, kirol pixka bat egin, bazkaldu, eta arratsaldean, beste kirol pixka bat eta baserriko lanak". Izan ere, baratzea eta animalia batzuk dituzte etxean, eta horrek "arnasa" hartzeko aukera ematen diela azaldu du pilotariak. "Kalean baino aukera gehiago dugu hemen. Ezin naiz kexatu. Naturatik gertu egonda, eguna errazago pasatzen dut. Ez naiz geldirik egotekoa, eta uste dut kalean sufritu egingo nukeela. Hemen, errazagoa da arnasa hartzea eta entrenitzea, eta hori alde etorri zaigu. Askotan, kalterako izaten da baserrian bizitzea, baina oraingoan, alderantziz tokatu da".

Herriatik aparte bizitzeak bere alde onak dituen bezala, ingurukoekin komunikatzea faltan sumatzen du Alberdik. Kalean hain ohiko bihurtu diren txaloak, adibidez, ez dituzte josten Arauntza baserrian. "Kaleko txaloak entzuten dira hemendik", dio. Dena den, alde onari begiratzen dio Alberdik. "Hala ere, nahiago dut hori gabe ni nagoen lekuan egotea, horrekin asko dauden bezala kaleko etxe batean egotea baino". Lagunekin afari bat egitea da gehien faltan sumatzen duena.

BARRENETXE

Bizilagun baten urtebetetze festarekin hasi zena, ospakizun multzo handi bat bilakatu da Sanjuandegiko Barrenetxe auzoan, eta auzotar horietako bat da Maixol Rezola (Azpeitia, 1971): "Hasierako egunetan, auzotar baten urtebetetzera bertsu bat prestatu genuen, eta bizilagunon artean kantatu genion. Gero,

etxepeko beste batek galdetu zuen ia apirilean beste bizilagunen baten urtebetetzerik ba al zen, eta horrelaxe hasi zen guztia”.

Asteburuetan ospatzen dituzte Barrene txekoek urtebetetze festak, eta Whatsapp bidez antolatzen dituzte horiek: “Urteak betetzen dituen bizilaguna Whatsappeko talde tik botatzen dugu, eta hark zer zaletasun di-tuen enteratzen gara, festa antolatzeko”, azaldu du. Behin bizilagunaren inguruko in-formazioa jasota, asteburuko programazioa egiten du Rezolak, eta ondoren, programa auzoko Whatsappeko taldera bidaltzen du: “Zapatu arratsaldetan egiten ditugu urtebe-tetze festak. Ordu jakin batean balkoira ate-ratzeko eskatzen diogu urteak betetzen di-tuenari, eta hark denok mozorrotuta ikusten gaitu eta zorionak kantatzen diogu”. Askota-riko mozorroak egin dituzte orain arte: “Festa batean ipotxez mozorrotu ginen, bizilagun bati perretxikoak asko gustatzen zitzaizkiola-ko”.

Urtebetetze festez gain, beste hainbat ospa-kizun ere egin dute auzoan azken hilabete-otan. Duela aste batzuk “Bermuteo Elegan-tie” egin zuten, Elegante Egunaren Barrene-txeko edizioa, eta auzotarrek beren elegante trajeak balkoira ateratzeko aprobetxatu zuten abagunea: “Mutil batzuek neskaz jatzeko aprobetxatu zuten Bermuteo Elegantie; eta neskek, mutil ez”. Horrez gain, astero-astero pintxo-poteoa eta bingoa ere egiten dituzte, beste hainbat ekintzaren artean.

Rezolak dio konfinamenduak auzotarren arteko harreman sarea hobetzeko balio izan duela: “Orain, 20:00etan txalo egitera ateratu zara, eta amaitutakoan ikusten duzu auzotar batzuk berrikerian gelditzen direla bal-koietan. Lehen horrelakorik ez zen gertatzen”. Kexaren bat edo beste ere izan dutela aipatu du Rezolak: “Bizilagun bat kexatu zen, baina guk orduak oso ondo errespetatzen ditugu, eta gure urtebetetze ospakizunek ez dute or-dubete baino gehiago irauten”. Gaur-gaur-koz, bizilagunek festarekin jarraitzeko asmoa dutela azaldu du Rezolak, eta konfinamen-dua amaitu arte jaiak ez duela etenik izango beren auzoan.



Jon Ibarzabal balkoian tronpeta jotzen.

GOIKOKALE

Goikokalen bizi da Jon Ibarzabal (Azpeitia, 1989), eta giro ederra da nagusi haien etxea-ren inguruan. “San Jose egunean edo, lauga-rren solairuko andre batek musika jarri zuen, suabe antzera, eta jendea balkoian gustura ikusi nuen”. Orduan otu zitzaion ideia Ibarza-bali: “Baffle batzuk dauzkat, eta horietatik mu-sika jartzen hasi nintzen”. Orduan, ostiral eta zapatu iluntzeetan eta igande eguerdian, ez da musikarik falta izaten haien auzoan. “Eta ez badut jartzen, berehala hasten da jen-dea: ‘Ez al duk musikarik jarri behar?’”.

Ibarzabalek bozgorailuetatik musika jarri zuen batean, bi emakume mozorrotuta atera ziren balkoira. “Orduan, batzuk txapelak jan-ten hasi ziren, besteak ez dakit zer... Hurren-go astean, berriz, Sevillako Apirileko Feria egitea otu zitzaion”. Horrelaxe hasi ziren, pix-kanaka, etxean egon beharreko egunak festa momentu bilakatzen: batean, 1980ko ha-markadako musika jarri zuten; bestean, Re-alaren eta Athleticeko arteko finala ospatu... “Jendeari bizipoza ematen diote halakoek, za-lantzarik gabe. Zain-zain egoten dira”.

Tronpeta ere jotzen du Ibarzabalek: “Nire urtebetetze egunean jo nuen lehen aldiz.

Pankartak-eta atera zituzten auzokoek, eta Zorionak zuri kantatu zidaten. Orduan, kantu bat eskainiko niela esan nien, eta pasodoble bat jo nuen”. Bost minuturako sakelako tele-fonoa jo eta jo ari zitzaion. “Horrexegatik ez nuen nahi jotzea, banekielako herri guztian bideoak zabalduko zirela”. Behin estreinatuta, ordea, gehiagotan ere animatu da musika-ria: “Esaten dute tronpeta Erdikaletik, San-tutxotik... entzuten dela”. Laguntzailea ere badu hark. “Inguruan bizi da saxofoia jotzen duen aukoitiar bat”.

Gauza bereziak egin dituzten arren, oro har, asteburuetan musika jartzen du balkoian Ibarzabalek, eta jendeak trago bat hartuz bal-koian egoteko aprobetxatzen du unea. “Ideia bat egiteko: hoteletan gauetan egoten diren musika ekitaldi horietan jartzen dituzten mo-duko kantuak jartzen ditut”. Kexarik ez dute jaso momentuz: “Are gehiago: aurreko bate-an, udaltzainak ere musika entzuten ikusi ni-tuen”.

Bizilagunen artean beste harreman sare batzuk sortzeko balio izaten ari da konfina-mendua, Ibarzabalen iritzi. Haren auzoan, “familia giroa” sortu dela dio. “Familiakoekin fisikoki egon ezin dugun honetan, ingurukoak bilakatu dira familia, bizilagunak”.*

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Saiba Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Aiortza
Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Auzotik mundura

Sokak balio izan digu nuarbetarroi mundua ezagutzeko: Europa men-debaldea eta iparraldea, Errusia barne; AEBak –bi alditan–; Hegoafrika... Baina, era berean, mundutarrek ere izan dute okasioa gure auzo txikia ezagutzeko. Eta horixe otu zait: jaso ditugun bisitariez mintzatzea, eta jaso behar genuen baina gauzatu ez zen gazte txinatarraren bisitaldiaz ere bai.

Jimm Kight ingelesa izan genuen lehen bisitaria. Tipo jatorra eta laguntzailea, Amerikan ezagutu ginen, 1984an. Lehiatzeko orduan, agian umezurtz samar somatu gintuelako edo, hurbildu eta laguntza eskaini zigun. Hurrengo urtean, maisu lanetara ekarri genuen hona. Orduz geroztik, dozena erditan izana dugu hemen. Urteak pasatu arren, Jimmen oroimena present dugu. Benetako mirsmena zuen nuarbetarrokiko, lortu genuen mailagatik. “Nik erakutsi niona baino gehiago daki Nuarbek, eta nork esan, orain guk ikasi behar nuarbetarregandik: ingelesok!”, dio irribarrez *Bakearen soka* dokumentalean.

Jaurlaritzak gonbidatuta etorri zen nazioarteko federazioburu holandarra Nuarbera. Helburua garbi zegoen: onar zezatela Euskal Herria –Basque Country eurentzat– TWIF nazioarteko federazioan. Alferrik, ordea. Alferrik jaso zituen ondraz eta laudorioak. Alferrik Nuarben gutiziaz gainezka egindako oturuntza, non ama Rosariok bere ahots eztiz abestu zizkion kanta herrikoiak. Euskal erakunde-
etako ordezkariekin egindako bileran, jaso zuen presiogatik edo, mehatxu egin zien jaiki eta hanka egingo zuela. Zokor-mazoa baino setatsua gure gizona. Zorionerako, 2014an TWIF erakundeak onartu zuen Euskal Herria kide bezala. Kuriosoagoa da Namiabiako ordezkariaren kontua. Aurreko txapelketetan, Nuarbe bisitatzeko interesa agertu zigun, hurbiletik ezagutu nahi zituen entrenamendu lekua, prestaketarako sistema eta abar. Berehala jabetu ginen Altuna prestatzailearen azalpenei baino interes gehiago



||||||| Luis gurrutxaga |||||

||| Sinestu ezin, bi kalez eta baserri bakan batzuez osatutako herrixka hain boteretsua izatea




zeriola gure interpretari, eta jabetu ginen zein zen hona etortzeko haren desira. Nonbait, aurreko urteko txapelketetan ezagutu zuen neska interpretarekin xarmarekin gelditu, eta... Suitzako, Irlandako eta Ingalaterrako taldeak 25. urteurrena ospatzeko ekarri genituen 2002an, eta besteak beste, museoa bisitatzeko parada izan zuten. “Baina, non dago Nuarbe herria?”, zioten suitzarrek. Sinestu ezin, bi kalez eta baserri bakan batzuez osatutako herrixka hain boteretsua izatea mundu mailan.

Txinatarrak Nuarben?

“Luix, Iñigo naiz, Realeko teknikaria eta Zubietako gazteen formakuntza eskolako arduraduna. Begira, txinatarrak ditugu hemengo eskolan, eta Gipuzkoan barrena gauzatzen dugun urteroko bisita Nuarbera egitea pentsatu dugu. Museoa ikusi, sokatira erakustalditxo zelaian eta bazkaria bertan, aukera baldin badago”. Eta nik baietz, oso ondo.

Tiralariei helarazi nienean, “hi, baina zer esan duk, txinatarrak hona?”. Izan ere, orduantxe zegoen puri-purian Txinan delako koronabirusaren kontua. “Lasai, hauek irailetik Donostian zeudek eta”. Zelaiaren jabeari eskatu baimena; ondoren, alokatzen duenari, –“bai, motel. Neuk prestatuko dizuet belardia”–; Joxemai sukaldariak ere dena prest zuen bazkaria antolatzeko. Bide batez, otargintza ere erakutsi nahi genien. “Lasai etorri. Zerbait erakutsiko zieagu”, Inixiok. Eta bost egun falta zirela, Iñigok: “Pikutara joan da gure nahia. Izugarritzko presioa jaso dugu txinatar gurasoengandik, eta Segoviako egoitza batera daramatzagu, konfinatzerat”. Etorri behar zuten hurrengo egunean sartu ginen alarma egoeran. Gerora ederki ulertu genuen txinatar gurasoen jarrera hura. Haiek bai jakin!*

HITZ GEZIDUNAK

	Proiektorea		Harri ugari duena		Mendiko ateak		Zabor, zarama		Barrabasa
	Gutziz aspertuak		Izena		Ukuihua, korta		Urania		
	Saroia						Errep., fruitu mota		
	Nafarroako udalerria						Heldu		
Traumatis- moak		Aurretik daudenak							
Erabakior		Deitura							
Barazki hostotsua			Greziako penintsula					Nitrogenoa	
Sudurreta-ko zikina			Mina adierazteko					Zuhaitz mota	
				Atzizki femeninoa			Txistua, listua		
				Egoskin mota			Leku horretan		
Higitu						Hurritzaren fruitu			Bi bokal, herri bat
Beharra						Selenioa			
			La bella ..., Donostia					Suari dario	
			Bokal mehea					Kontso- nantea	
Euskal atzizkia					Artea, antzea				

Egilea:
Luma

* Ikerlari azpeitiarra

SUDOKUA

		3		1	7			8
								1
5	6		3		9		7	
2			9		8			7
		8				9		
7			1		4			5
	8		7		3		2	6
6								
1			2	5		8		



Il Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin

1. Barreiatu. 2. Ate inguru. Gorputz osoko zainetan dabilen isurkari gorri. 3. Gure herriko adinekoen egoitza. 4. Erreka handi. Bizkaiko udalerrria, Busturialdean. Ez eme. 5. Errepikatuz, gorotza. Ameriketako Estatu Batuak, labor-labur adierazita. Alderdi karlistaren siglak. 6. Ulertzeko ahalmena, adimena. Kontsonantea. 7. Ehun gardenez osaturiko itsas animalia, kanpai forma duena. Hektarearen laburdura. 8. Ez zaila. Pinu. 9. Gipuzkoako udalerrria, Urola Kostan. Bokal mehea. Egun. 10. Kairoko herritar. Bokala.

Goitik behera

1. Sasikoak, ezkontzaz kanpo jaioak. 2. Atabal jotzailea. 3. Luzera neurria. Toraxeko eta abdomeneko barne organoen multzo. 4. Sareak eraikitzen dituen artropodoa. Kontsonantea. 5. Lehen bakoitia. Zirrara. 6. Bokala. Emakume izena. Kontsonantea. 7. Musika ikurra. Sodioa balio du. Galioaren ikur kimikoa. 8. Erne! Norbaiten arreta lortzeko edo norbaitiadore emateko erabiltzen den hitza. Gehiegi, sobera. 9. Pluralean, mila kilo. Hi. 10. Alderantziz, lutezioaren ikur kimikoa. Gure errepi-deetako abiadura neurtzeko detektagailua.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2						■				
3				+						■
4					■			■		
5			■				■			
6									■	
7								■		
8							■			
9				■		■				
10									■	

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
 BIDALTZEKO EPEA. Maiatzak 25 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Soreasuko Sormen Gunea, 1. solairua (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

|||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

▲	I	L	R	E	●	▲	I	R	E	K	●
E	K	●	O	S	▲	E	●	▲	N	▲	L
●	R	U	H	●	U	T	I	G	U	M	●
▲	U	T	●	▲	S	●	▲	I	K	U	M
N	●	▲	K	I	T	▲	▲	Z	▲	●	
I	R	I	G	A	R	I	K	▲	B	▲	E
K	▲	O	K	E	R	R	▲	U	▲	●	●
O	K	●	▲	T	R	O	K	●			
K	▲	▲	T	U	▲	G	O	G			
●	Z	●	▲	●	H	●	F	●			

SUDOKUA

4	9	8	6	5	2	7	3	1	9
3	5	7	1	9	8	2	4	6	7
6	2	8	9	1	7	5	3		
5	7	8	5	7	4	3	1	2	6
5	7	9	6	1	3	4	2	8	5
4	6	4	2	8	5	7	2	9	6
4	7	2	9	6	8	3	1	7	
7	2	5	4	9	6	8	3	1	7
5	6	1	3	8	9	4	7	2	
8	7	9	4	2	5	6	3	1	
4	2	3	6	1	7	5	9	8	

|||UZTARRIAREN APIRILEKO LEHIAKETA|||||||

IRABAZLEA

Mikel Belar Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 126. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa, eta koronabirusagatik ezarritako alerta egoera igarotzean jasoko du saria.



**URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

Haserre paseatzera

Mezu baikorren bila bazabiltza, utz iezaiozu irakurtzeari. Gaur ez dut animorik zuretzat. Gaur haserre nago, eta lekua egin nahi diot haserre horri. Izan ere, amaitu zaizkit konfinamenduaren erromantizismoak. Hasieran bai, dena zen irribarre, dena baikortasun, dena meme. "Lortuko dugul!", nioen dei bakoitzaren amaieran. "Gure buruarekin eta etxekoekin konektatzeko erabilgarri izango zaigu" edo "ikasgairan bat aterako dugu honetatik" gisako premisak esaten nituen nire baitan. *Error 404.*

Amaitu zaizkit *guayismoak*. Eraikia nuen koloretako mundua ajatzen hasi zait, eta etorkizun

beltzean gorriak ikusi beharko ditugula sinesten hasi naiz lau pareta artean bizarra urdintzen zaidan bitartean. Kontua da inoiz baino nabariagoak zaizkidala sistemaren mekanismoak, gabeziak eta kontraesanak, inoiz baino eragiteko ahalmen txikiagoa daukagun honetan. Guztiontzat lekua zegoela zirudien mundua mugatu digute. Aniztasunaren aberastasunarekin ahoa betetzen zitzaigula, neurri berdinak ezarri dizkigute. Lanean hil gaitezke, baina ezin ditugu gure hildakoen hutsuneak landu, eta norbere munduaren kontrola galdu dugunez, aldamenetako kontrolatzeko tresnak darabilzkiugu. Aska-

penerako inoiz baino aldarri gehiago geneuzkela uste genuenean, denontzat tamaina berekoa den kortse estu bat lotu behar izan dugu. Askatasuna kendu digutela esan nahiko nuke, baina inoiz ez dugula izan agerian geratu dela pentsatzearekin konformatuko naiz.

Haserre nago eta tarte eman nahi diot horri. Agian, doluaren bigarren fasera pasatu naiz, ukaziotik amorrura, eta hori aurrerapauso bat da datorkigun galerari aurre egiteko; betierekotzat saldu nahi diguten baikortasun faltuaren atzeko emozio desatseginei ere lekua egin beharko diegulako aurrera egin nahi badugu.✘



|||||||||||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!

Edurne Mendizabal Plax! zerbitzuaren arduradunari egokitu zaio galderei erantzutea.

Zer esan nahi duzu Plax!-ez?

Zerbitzu publikoa, doako eta profesioanala da. Erabiltzaileen profilak eta horien eskariak anitzak dira. Zerbitzuak talde bat du atzean, Harremonak egitasmoarekin bat egiten du eta, besteak beste, sexualitatea herriratzea da xedea.

Plax! konfinamenduan...

Inoiz baino garrantzitsuagoa da, eta eragileekin nahiz erabiltzaileekin harremanetan jarraitzen dugu. Aurrez aurrekoa ezin da ordezkatu, baina teknologia berriek aukera onak eskaintzen dituzte.

Herritarrek jo al dute zerbitzura?

Erabiltzaileekin harremanetan jarri ginen konfinamendua hastean, eta batzuek jo dute gugana.

Plax!-ek zer eskaintzen du?

Entzutea da garrantzitsuena. Kontrastatzen, antolatzen eta hausnartzen laguntzen du. Sexologiak metodologia sendoak ditu: estrategiak, gomendioak, ariketak... Aberasteko aukerak eskaintzen ditu.

|||EDURNE MENDIZABAL|||

Adina. 47 urte.

Herria. Hernani.

Bizitokia. Hernani.

Lanbidea. Parekidetasunean eta sexologian aditua.



Azpeitiarren eskaerak?

Askotarikoak dira: norbere erotika, gorputza, gozamina, harremanak, bikoteak, seme-alaben hezkuntza, elkarbizitza... Eskertzen da arreta jartzea, premia bada.

Zein dira konfinamenduaren indarguneak?

Gure esparru publikoa ikaragarri murriztu da, eta intimora mugatu

gara. Esparru intimoan, norbere buruarekin eta etxekoekin ditugun harremanak goxatzeko, aberaste... aukera dugu. Elkartasun sare garrantzitsuak daude marxan, eta mundu emozionalari eta erotikoari lekua egitea garrantzitsua da.

Eta ahulguneak?

24 orduko elkarbizitzak eta askatasun mugatuak gatazka potoloak

ekar ditzake, eta nahi dugun pertsonekin ezin egoteak eta isolamenduak, nahigabea. Eta zer esanik ez ligatzeko aukerez. Dena den, teknologiak eskaintzen ditu aukerak.

Gomendiorik?

Zaindu, exijentzia gutxitu, malgua izan, maitatu... afektibitateari lehentasuna eman. Eta tristurei eta beldurrei lekua egin. Zaintzak erdiguenean jarri.

Gomendio erotikorik?

Erotismoa etxeko edozein tokitan. Norberak, norberarentzat, bere estiloan. Seduzitzea kirol ederra da, onuragarria da oso.

Bikoteentzat gomendiorik?

Exijentzia jaitsi, malguak izan, espazio-denborak utzi eta hartu, gatazkek mahai gainean jarri, negoziatu, sormena landu...

Eta aurrerantzean, zer?

Zer harreman eta jendarte nahi ditugun pentsatzeko aukera dugu. Hausnarketa eta elkartasun sareak elika ditzagun. Osasuna bai, plazera ere bai!✘



||||haizea egiguren (Arremanitzeko kidea)|||

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688 89 79 20
Egoera dela eta, hilabete honetan ere ez da aurrez aurreko hitzordurik izango.

D bitamina

Koronabirus eta konfidamendu egun hauetan, asko entzun dugu D bitaminaz. Bitamina garrantzitsua da, bai orain, baita lehen ere. Egia da, immunomoduladore bezala paper garrantzitsua duela; hau da, infekzioak saihesten lagutzen duela, eta infekzioa badago, konplikazioak arintzen. Immunitatean ez ezik, hantura sistemikoan eta metabolikoan, hezurren osasunean eta giharretan edota ugalkortasunean garrantzia duen bitamina da.

D bitamina eguzki esposizioetik lortzen dugunez, eta gaur egungo egoera ikusita, arreta berezia jarzea komeni zaigu. Esposizio egoki bat izateko, kontuan izan beharko ditugu zenbait filtro –leihoetako kristalak eta azala babesteko kremak, esate baterako–, eta eguzki esposizio ordua ere bai. Bizi garen latitudean, udaberrian eta udazkenean 13:00-14:00 ordu tartea da egokiena, eta esposizioaren iraupena ordubetekoa gutxienez, D bitaminaren sintesia egokia izateko.

Elikagaiak ere baliatu ditzakegu D bitamina lortzeko: arrain urdina, esnea, arrautzak... Animaliak hazi diren moduaren arabera, ordea, desberdina izango bitamina kantitatea: ezin dira alderatu aire zabalean hazitako behiak eta oiloak, intentsiboki hazitakoekin. Bakoitzak erabaki dezala zer kontsumitu.*



|||||||aitziber aizpuru|||||||

IBAN IZAGIRRE tatuatzailea



1. Zer behar da tatuatzaile izateko?

Marratzen jakitea beharkekoa da, eta pazientzia izatea ere bai.

2. Tinta beltza edo koloretakoak?

Tatuajeak egiteko, beltza nahiago.

3. Zein da tatuaje bat egiteko lekurik aproposena?

Erazena, besaurrea; eta zailena, berriz, lepoa.

4. Herritarrek zernolako tatuajeak eskatzen dituzte gehien?

Naturako elementuen marrazkiak.

5. Lanik gehien, noiz? Negan.

6. Orain arte egin duzun tatuajerik bitxiena?

Artakaxkarra.*

Maialen Etxaniz

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larriak: 943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Iñaki Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

Alar
merzeria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

LAU
NEUMATIKOAK
PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
943 053056 (leioa kalea 30, 20730 Azpeitia)

uba
ENBROGATZITZA
Abokatupekoa
FIDEKO
Jasotako
Sententziak
Gestioi lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa
Tel. 943 157 420 Fax. 943 157 374
Egoitza: Salda, 43 - 1. kateko eraikinaren aldea

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Telefonoa: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 19:30 - 20:00
Jose Artetxe kalea, 3
943 81 28 08
aribadburua@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik

IRENE ALTUNA
ORAZENDA
Loiola Bidea, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com



Bizitza gozotzen

Gustuko ofizioan aritzen den arren, baditu afizioak Inazio Egañak; motoan ibiltzea, esaterako. 📝📷 Maialen Etxaniz

B

izitza goxatzeko norberak jarri behar ditu azukrea, gatza eta piperra". Hala dio Inazio Egañak (Azpeitia, 1976). Txikitatik gozogintzari estu lotuta den arren, saiatzen da tarteka mundu horretatik askatzen, eta badira bere bizitza gozotzen duten beste hainbat gauza eta zaletasun. Nahi baino denbora libre gutxiago badu ere, denetarik egitea gustatzen zaio gozogileari.

Azpeitiko plazan jaio zen Egaña, eta haurtzaroko eta gaztaroko momentu gehienak kalean eta familiaren gozotegian igaro zituen.

Umea zeneko "oroitzapen oso politak" dituela dio. "Haurrak ginela, kalean ibiltzen ginen uneoro. Orduan denbora libre gehiago genuen. Bizikletak hartu eta herrian zehar ibiltzen ginen, han eta hemen jolasean. Kalera atera eta topatzen genituen haurrekin jolasten genuen. Orduan ez zegoen gailu elektronikorik, eta irudimena jartzen genuen dantzari". Orain hiru ume ditu, eta haien bizi eredu ikusita, ohiturak asko aldatu direla uste du: "Gaur egungo haurrekin alderatuta, telebista gutxi ikusten genuen guk, eta gailu

elektronikorik ez zegoenez, kalean egiten genuen bizitza. Askoz lasaiagoa zen dena".

Kalean egotea atsegin bazuen ere, ordu ugari pasatu zituen familiako gozotegian sartuta. "Ni obradorean jaio eta hazi nintzen", azaldu du. "Uda sasoiari, eskolako ikasturtea amaitzen genuenean, etxean lagundu behar izaten nuen. Laguntzea gozotegian nire alea jartzea zen. Aitarekin bizkotxoak egiten nituela gogoratzen dut, baina ez zen denbora pasatzeko egiten genuen zerbait. Lanean aritzen ginen, eta gustura, gainera"

Eskolako urteak amaitzerako, Egañak bazekien zer izan nahi zuen handitan; zer izan nahi zuen edo zertan aritu nahi zuen: "Argi nuen gozogintzan jardun nahi nuela. Hori dela eta, gaztea nintzela murgildu nintzen sektore horretan". Eskola etxean izan zuela dio, baina gozogintzari lotutako formazioa familian ez ezik, herritik kanpo ere jaso zuen. Amak asko lagundu zion horretan: "Aita goiz hil zen, eta, zoritxarrez, ez nuen aukera askorik izan haren ondoan hazteko. Amak asko lagundu zidan, ordea; ikaragarri lagundu ninduen. Amak pentsaera irekia zuenez, ikastera animatu ninduen". Gaur egun, aitona eta aitak hasitako bideari eusten dion senide bakarra da Inazio: "Bi arrebak ditut, bata zaharra goa eta bestea gazteagoa, eta horiek beste bide bat hartu dute". Dena den, gozogintza ez da Egañaren bizitzako osagarri bakarra.

Moto irteerak

Lanetik kanpo zer egitea gustatzen zaion galdetuta, "pixka bat denetik" esan du. Egañak etxetik atera eta mendira joatea atsegin du, baita itsasoan ibiltzea ere. Bere "pasioa", ordea, motoan ibiltzea da. Ibilgailu hartu eta errepidean edozein noranzkotan ibiltzea "ikaragarri" gustatzen zaio: "Motoan Sorriara, Kantabriara, Nafarroara... joatea atsegin dut, baina hemen inguruan ere egiten ditut itzuliak ibilgailuarekin. Burua lasaitzeko eta deskonektatzeko balio izaten dit". Lagunekin nahiz bakarrik egiten ditu motoan bidaiak, eta bi planak ditu atsegin: "Bakarrik egotea asko gustatzen zait, baina lagunekin egotea ere bai. Plan desberdinak dira, eta unearen arabera, bata edo bestea nahiago dudana arren, bi planak gustatzen zaizkit".

Baina zein da plan perfektua Egañarentzat?: "Familiarekin egun pasa eder bat egitea plan borobila da, mendira joatea edo kostaldeko lekuren bat ezagutzera joatea ere bai. Nonbaiten lasai bazkaltzea, inguruak behatuz pasiera bat egitea, tragoren bat hartzea... guztiok atsegin ditugun gauzak".

Kirola atsegin al duen galdetuta, kirola ikusteak "aspertu" egiten duela azaldu du. Dena den, zenbait kirol praktikatzea gusta-



1. Egaña –ezkerretik aurrena–, lagunekin motoan Marokora egindako bidaietan. **2.** Egaña Italiako herri batean.



tzen zaio, hala nola mendira joatea edo bizikletan ibiltzea. Gaztetan surfa ere egiten zuela kontatu du.

Kuadrillakoekin poteora ateratzea ere atsegin du azpeitiarrak, baina hori "asteroko kontua" dela dio. "Gaztetan oso parrandazalea izan nintzen, Fideo de Mileto tabernatik ez ginen atera ere egiten. Orain, ordea, nahiago ditut plan lasaiagoak. Garaian garaikoa. Gainera, astebururo ateratzen gara kalera, poteatzera; bizpahiru trago hartu eta etxera joaten gara. Hori asteroko kontua da, ordea; familiarekin egun pasa irtetea edo lagunekin motan ibiltzea ez da astero egiten den zerbait. Horregatik dira plan bereziak". Dena den, azken boladan, konfinamendua tarteko, horren ohikoa den poteoa faltan sumatzen duela adierazi du Egañak.

Musika, liburuak, marrazketa...

Astegunetarako beste hainbat afizio ditu azpeitiarrak. Egun osoko lanaldiaren ostean, etxera iristean, deskonektatzen saiatzen da, eta horretarako hainbat bide dituela azaldu du. "Etxera nekatuta iritsi ohi naiz. Horrelakotan, musika entzuteak asko laguntzen dit. Musikak lasaitzen nau". Hala ere, gaur egungo musika komertziala "gorroto" du: "Era askotako musika gustatzen zait, baina ez gaur egungo musika komertziala, latina, reggaetoi eta hip-hop. Modan dauden eta edo-

non entzuten diren musika mota horiek ez zaizkit batere gustatzen. Rock musika asko entzun izan dut, baita klasikoa ere. Denetarik: Pink Floyd, Johann Sebastian Bach, Benito Lertxundi...".

Musika entzuteak ez ezik, irakurtzeko ere laguntzen dio burua lasaitzen Egañari. "Nobelak irakurtzen ditut gehien, baina saiakera liburuak ere irakurri izan ditut noizbehinka. Hala ere, nahi baino denbora gutxiago daukat irakurtzeko".

Gozogintzan artista bat da Egaña, baina beste mota bateko artelanak ere atsegin ditu. "Artelanak asko gustatzen zaizkit, eta marraztu ere egiten dut tarteka. Ezin dut esan oso ona naizenik, baina tira... Ahal dudanean saiatzen naiz marrazteko denbora hartzen". Artelanak atsegin dituenek, bidaiatzen duenean badu museoetara joateko ohitura. Eta bidaiatzea gustuko badu ere, gaztetan horretarako grina handiagoa zuela aitortu du. "Nire emazteak urte osoa pasatuko luke maleta eginda, baina ni dagoeneko pixka bat makaldu naiz. Egin izan ditugu bidaiak ederrak, besteak beste, Indiara, Marokora... Orain hiru ume ditugu, eta haiekin beste mota bateko bidaiak egiten ditugu, lasaiagoak".

Lana eta afizioak ahal bezain ondoan uzartzen saiatzen da Egaña, bizitzaz ahalik eta gehien gozatzeko. Baina argi dio: "Norberaren gain dago bizitzaren zaporea".*

IKA argi lanak s.l. Instalakuntza Elektrikoak
 Uka: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
 ikaergilanak@gmail.com www.ikastizemak.com
 20730 AZPEITIA

Zure autoak bota dize zabalduzazu
AIZPURU AUTOAK
 PIZANZTEKOR
 Tel: 943 81 22 88 aizpuru@aizpuru.net Arretxo 17, 20730 AZPEITIA
 Fax: 943 81 22 81 www.aizpuru.net

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (MAIATZA)

1-2-3-7-13-18-23-24-29
Artetxe Bastida
943 811949

6-9-10-15-20-27
Jacome.
943080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzaren 27an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALETXEA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ POLTSA ORGANIKOAK.

Alarma egoera tarteko, Kiribil ekodendan, Despenssa Naturala saltokian, Itzira kafetegian, Farmazabal parafarmazian eta Urrestillako estankotan banatuko dituzte poltsa konpostagarriak.

5-12-19-26-30-31
Alberdi.
943815974

GAUEZ, URTE OSOAN
Aranburu.
943811350

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

GIOVANNA LOMBARDI

Majano (Friuli-Venezia Julia, Italia)

“ETXEAN BEZALA SENTIARAZI NAUEN JENDEA AURKITU DUT AZPEITIAN”

Duela zortzi urte ezagutu zuen Euskal Herria, eta iaz gelditzea erabakita itzuli zen, Azpeitira. ✉ Mailo Oiarzabal

Venezuela, Italia eta orain Euskal Herria. Ez zara geldirik egotekoa.

Venezuelan jaio nintzen, Puerto Cabellon. 11 urterekin iritsi nintzen Italiara, familiarekin. Fusinen bizi izan nintzen hasieran, Friuli-Venezia Julia eskualdean, Austriako eta Esloveniako mugetatik gertu. Eskualde bereko hainbat herritan bizi izan naiz. Hona iritsi aurretik, Majanon bizi nintzen eta taberna batean egiten nuen lan; 14 urte nituenetik aritu izan naiz zerbitzari lanetan.

Ezagutzen al zenuen Euskal Herria Azpeitira etorri aurretik?

2012an etorri nintzen lehen aldiz, oporretan. Hamabost egun pasatu nituen hemen, eta izugarri gustatu zitzaidan; paisaia ikusgarriak eta pintxo zoragarriak! 2017an itzuli nintzen, baina hiru egun besterik ez nituen egin orduan. Hala ere, bihotzean gordeta nuen ordurako Euskal Herria. 2019an, motxila hartu eta abentura berri bati ekitea erabaki nuen. Horrela iritsi nintzen Azpeitira.

Eta zer moduzko harrera izan zenuen hemen?


Oso ona. Berehala etxean bezala sentiarazi nauen jendea aurkitu dut Azpeitian, oso abegikorra. Taberna batean hasi nintzen lanean, eta bertan jarraitzen dut. Han lanean hasi nintzenean ikasi nituen euskarazko lehen hitzak. Inguruko jendeari eta bezeroei eskerrak eman beharrean nago, nirekin izaten duten pazientziagatik, eta erakutsi didaten elkartasunarengatik ere bai.

Zergatik duzu hain gustukoa Euskal Herria?

Itsasoa ondoan duen hiri batean jaio eta mendi artean dauden herrietan hazia naizelako dela uste dut. Euskal Herrian biak dauzkat eskura, itsasoa eta mendia, eta hori da gehien gustatzen zaidana. Itsasoa zainetan daramat, eta esploratzeko gogoia ere oso dut neurea.

Zer da Italiatik faltan gehien sumatzen duzuna?

la ezer ez, egia esan, ezer aipagarririk ez, behintzat. Txoratzen nago hemen aurkitu dudanarekin eta bizitzen ari naizen esperientziarekin, opari baten antzekoa ari da izaten niretzat.*




1

1. Lombardi, Azpeitia inguruko baso batean.
2. Zumaian, 2012an etorri zenean. 3. Donostian.

1.259 kilometroko distantzia dago Majano eta Azpeitia artean.



2



3

Konfinamundua

Konfinamendutik konfinamundura egin dugu. Hamabost egun. Aurrenak joan ziren. Beste hamabost egun, gero. Eta ondoko hamabost egunak. Eta txanda gehiago. Zortzigarren astea alabaren konfinamendua konfinamundu bihurtu zenetik. Astean behingo erosketak, eta, gaitz erdi, txakur zoroak atera behar derrigorrez, inoiz ez ditut orain bezainbat maite izan gure bi txakur kalamidadeak, ez dugu ibilaldi makalik egiten etxetik irtenda mendi aldera, txakurron aitzakian. Ertzainik ez zaigu parean fortunatu, eta libratu gara isun ez txikietatik. Mendian bertan bizitzeak hamalau abantaila ere baditu, baina ez noa denak zerrendatzera.

Tiriki-tauki-tauki, mailuaren hotsa

Txinatik datorrena, koronabirusa

Konfinamundura egin dugu, eta kalera ezin irtenda, balkoi eta terrazetara egin du kaleko jendeak. Mendian munduan segitzen dugu, lehengo lepotik burua. Ez kazola-hotsik, ez txalo, ez pankarta... Eguzkia bere amarengana joaten da gauero, eta etortzen da hurrengo egunean, denbora ona bada, eguraldi ona egiten badu, alegia. Eta ikusi dugu Luix, nuar-betarra, aurreko orrialdean kolaboratzen eta etxeko balkoira irten eta saxoa jotzen, ondo jotzen ere, New Orleanseko jazz-jole ikatza baino beltzagoak joko lukeen moduan, zoragarri, mundua edergarri.

Tiriki-tauki-tauki, mailuaren hotsa

mundua isildu da, hau da hau kaosa

Ahots bat besterik ez

Konfinamendua konfinamundua errotik kanbiaraziko duela esaten ari dira. Aldatu behar delako mundua. Ezetz. Lehen ere izan dituela aukera galantak, eta munduak ez duela bere burua aldatu. Izan zela XX. mendearen hasieran Lehen Mundu Gerra, Gerra Handia, 1914-1919, "gerra guztiekin bukatuko zuen gerra". Barkatu. Barre egingo genuke negar egitekoa ez balitz. 11 milioi soldadu, bederatzia milioi zibil hil omen ziren "estimazioen ara-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Orain arteko autonomiak eta eskuduntzak eta gainerakoak, airean eraman ditu koronabirusak

bera". Ez alferrik, gerra guztietan azkena izango zen gerra hura. Bigarren Mundu Gerra, 1939-1945. "Munduko biztanleen %2 hil ziren, 50 eta 80 milioi pertsona artean. Horietako gehienak Sobietar Batasuneko eta Txinako zibilak". Koronabirusak ere ez du mundua aldaraziko. Ergelen nombrea fingabea da. Edo zozoen kopuruak ez du mugarik.

Tiriki-tauki-tauki, mailuaren hotsa

Josefatera deia, egin du birusak

Etorri da koronabirusa eta erakutsi digute buelta honetako euskal herrietakoak espainiadependente gara, guztiz. Bagenekien lehendik, ari ginen esaten, hargatik ibiltzen dugu beti 'independenzia' elastikoa agerian, ez dugu axkoitiar ilustre harena egiteko asmorik: erretiratu bitartean Madrilen bateko eta beste espainiar estatuburu eta presidenterekin akordio bila beti, independenzia-truke, eta erretiratu ondoren, "independenzia behar dugu" aldarrika. Jarduiook ttoari! Orain arteko autonomiak eta eskuduntzak eta gainerakoak, airean eraman ditu koronabirusak. Ahots bat besterik ez da nagusitu, espainiar hiriburutik etorri dena, guardia zibila eta militarra ondoan. Horiek kalantze, horiek!

Tiriki-tauki-tauki, mailuaren hotsa

hau konfinamundua, xomorro bat kausa.✳



TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com



ELKARREN BEHARRA DUGU!

Alarma egoera hasi zenetik, egoerara moldatu behar izan dugu gure jarduna,
baina erantzuna izugarria izan da.

uztarria.eus-en trafikoa %88,52 igo da!

Zuek ahalbidetzen duzue gure jarduna tokikoa, anitza, euskarazkoa eta profesionala izatea.
Eta horrela jarraitzeko, zuen sostengua ezinbestekoa dugu.

Egin zaitez bazkide!
administrazioa@ukt.eus edo **webguneko formularioa bete eta bidali.**

uztarria